



eta orain...  
**BESTE GUZTIAK ETXERA!**

## Balda etxean, altsasuarrak zain

11/13 sumarioan aldeek akordioa itxi dute. Altsasuko Auzian Gorenaren epaiaren zain daude / 10-11

**Alai Ecotermoformados enpresa berria 13 langilerekin hasi da lanean Altsasun, hazteko asmoz / 7**

**Egiarretako festak izanen dira asteburuan. Eta Ergoienako Eguna larunbatean / 5**

**Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala jokatu dute igandean 226 korrikalarik / 13**

**Dorraok hartuko du larunbatean Ergoienako Bira, goizeko 10:00etatik aurrera / 14**

**Esperientzia "aberasgarria" izan du Etxarri Aranazko Abesbatzak ETBko 'Ahotsak' saioan / 21**

**Jon Maia bertsolaria eta 'Hezurbeltzak' taldeko kidea: "Bide berri bat zabaltzen saiatu naiz" / 23**

**SAKANA**  
Itsasi AEK euskaltegia

Izena emateko azken eguna: irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea  
ALTSASU

948 468 258

sakana@aek.eus

**DIRULAGUNTZAK**

Sakanako Mank: BEKAK

Zu hemen zaude,  
AEK ere bai



**EUSKARA-IKASTAROAK**

# Festak, giro ederrean

Eguraldia lagun, festa giro ederra izan da Altsasun. Herriaren istorio txikirako geldituko da bi erraldioen mustutzea edota aurrenekoz Kuadrillen Eguna ospatu izana. Batzuk, jada, ferietan pentsatzen hasiak dira



Etxajua lehertu bezain laster abiatu ziren peñak kalejiran.

**AUKERA GALDURIK?  
EZ HORIXE!  
IKASI EUSKARA**

**GOZATU EUSKARA!**  
**948 012 012** [www.euskaraikasi.nafarroa.eus](http://www.euskaraikasi.nafarroa.eus)  
[www.efoide.eus](http://www.efoide.eus)  
Dirulaguntzak matrikularako

**Antolatzaileak**  
Udalek: Agoitx, Antsoain, Aranguren, Artzi, Atarrabia, Auritz, Berañain, Basaburua, Berriobelti, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Erro, Estella-Lizarrar, Esteribar, Etxauri, Galar, Gares, Imotz, Luzalde, Odieta, Oitza Zendea, Orkolen, Uhartea, Ultzama, Zizur Nagusia.  
Mankomunitateak: Iruiz, Izarbelbar, Sekana.  
Batzorde Nagusiak: Aezkoa, Erronkari, Zeraitzu.

**Laguntzaileak**  
euskaraidea, Nafarroako Gobernua, Gobierno de Navarra, aek, Iru, ZUBIARTE, Iru



Txirindula probako antolatzaileek festei hasiera eman zioten.



Munduko Arrozak, altsasuarrak harremanetan jartzeko.



Txikiak ere festako protagonista izan ziren.



2018ko kintadak aurreneko argazkia atera zuen ostiralean.



Kinta eta kinto erraldoi berriek harrera beroa izan dute.



Auzolanean 800endako herri bazkaria antolatu zen.



Reincidentesek jendea erakarri zuen.



Festan segitzeko indarra hartzen.



Amazona gaztetxoak festetan.



Aurtengo berritasun ikusgarria.



Udalaren adinduendako omenaldia Florentino Etxabarri eta Maria Ramosendako.



Kantuzaleak afaltzera elkartu ziren Kantaitan-en edizio berri batean.



Bertako arrazetako azienda ikusgai izan zen Irurtzungo plazako frontoian.



Gazta lehiaketako podiuma: Antsoea, Marta Perez eta Balda-Artola. UTZITAKOA

# Bertakoaren deiari erantzuna

VII. Irurtzun-Arakilgo Bertako Ganadu Azokak jendea poliki erakarri zuen. Bertako ekoizleen salmahaietatik pasa, aukera aztertu eta erosketak egin zituenik izan zen. Gauza bera gertatu zen Arbaso elkarteko artisauen postuen paretik pasatzen zirenekin



Brun forjakoek ezpatak nola egiten diren erakutsi zuten.



Iskidik estreinakoz artaldega atera zuen kalera.



Irurtzungo plaza jendez bete zen.



Azokatik pasa zirenek Idiazabal gaztaren lehiaketan parte hartu ahal izan zuten.

## Hirugarren Ergoienako Eguna Dorraok hartuko du

Larunbatean ospatuko da egun guztiko egitarauarekin. Atletismo proba, herri bazkaria eta musika izanen da

### ERGOIENA

Ibarreko nortasuna indartzeko asmoz sortu zuen udalak Ergoienako Eguna 2017an. Lizarraga, Unanu eta Dorraoko herritarrak elkartuko dituen ospakizuna izan nahi du. Lehendik jokatzeko zen Ergoienako Bira atletismo probako egunarekin bat egitea erabaki zuten udalean eta horrela segitzen du hasieratik. Ergoienako hiru herrietatik txandaka pasatzen den ospakizuna da ibarreko eguna.

Egitarauari dagokionez, Ergoienako Bira lasterketa proba-



Joan den urtean Unanun. ARTXIBOA

rekin hasiko da. 09:00etan izen ematea zabalduko da. Ordu bat geroago haurren lasterketa hasiko da. 11:00etan helduek ekinen diote ibilbidea osatzeari. Korrikalari guztiak iritsi ondoren auzatea izanen da. Behin lasterketarenak eginak, 15:00etan, herri bazkaria izanen da. Eta 18:00etatik aurrera, Modestorekin dantzarako doinuak izanen dira. Gainera, ardi tripota dastaketa izanen da. Haiek bulkatzeko ardoa edo sagardoa aukeran izanen dira.

### Non ospatu da

2017 Lizarraga.  
2018 Unanu.  
2019 Dorrao.

## EGIARRETAKO FESTAK



### FESTAK OHIKO DATARA BUELTATU DIRA

Egiarretarrek euren festak bi urtez agorrilean ospatu ondoren, atzera ere, irailera bueltatzea erabaki dute. Aldaketarako arrazoia izan zen hurrendako eta gurasoendako bateragarriagoak izatea ikasturtea eta ospakizunak. Baina bi urteko esperientziaren ondoren zeudenera bueltatzera erabaki du Egiarretako Kontzejua. "Etxarrikoekin bat egin zuten eta ez zen inor etorri. Horrela, behintzat, norbait etorriko den esperantza dugu", azaldu digu Fermin Izkieta Arbilla kontzejuko buruak.

### OSTIRALA 20

15:00 Herri bazkaria.  
16:00 Bazkalondoa Migel eta bere akordeoiarekin.  
17:00 Mus, briska eta partxis lehiaketak.  
17:30 Puzgarriak eta buruhandiak.  
18:00 Festen hasierako etxajua.  
20:00 Dantzaldia Modestorekin.  
22:00 Herri-afaria.

00:00 Dantzaldia Modestorekin.  
01:00 Zentroaren irekitzea.

### LARUNBATA 21

11:30 Jokoak, puzgarriak eta buruhandiak.  
13:00-15:00 Otamena eta paella lehiaketa.  
17:00 Puzgarriak eta buruhandiak.  
17:30 Erronda Migel akordeoilariarekin.  
21:45 Zezensuzkoa.  
22:00 Gazte-afaria.  
00:00 Dantzaldia Andusekin.

### IGANDEA 22

11:00 Meza.  
12:00 Otamena eta herriko helduei omenaldia.  
12:30 Bermuta.  
12:30 Puzgarriak eta buruhandiak.  
16:00 Plater tiroketa.  
18:00 Tenampak mariatxia.  
20:00 Dantzaldia Andusekin.  
20:30 Tortila eta txistorra dastatzea.  
23:00 Hau pena nik!

## Sandindei indartzeko proposamenak jaso ditu Arbizuko Udalak

Arbizuko Udalak herriko ospakizunaz herriarren iritzia jasotzeko asmoa adierazi zuen legegintzaldi hasieran. Eta Sandindei egunean hasi ziren horretan. Festa eguna baliatuz udaleko eldeek mahaiz mahai Sandindei egunari buruzko galdetegi bat banatu zuten. 62 erantzun jaso zituzten egunean bertan. Baina han ez zeudenen, gutxitan parte hartu dutenen eta festan sekula parte hartu ez dutenen iritzia jaso nahi dute udalean, banakakoa edo taldekakoa. Galdetegia arbizuar guztiei iristen saiatuko da udala baina, bestela, iritzia partehartzea@arbizu.eus e-posta helbidera bidali daiteke.

Orain arte jasotako iritzien arabera, parte-hartzaileei gehien gustatzen zaiena da: basoan bazkaria egitea, basoan jatea, lagun artean egotea, herriko jende desberdina biltzea edota sortzen den giroa. Jende gehiago parte hartzeko ideiez batera, festaren dataz eta antolaketan parte hartzeko prestutasunez galdetu du.

## Extremaduraren kultur erakustaldia Altsasun

La Encina elkartearen kultur jardunaldiak izanen dira asteburuan

### ALTSASU

Extremadurako kulturaren erakusle izan nahi duen hiru eguneko egitaraua prestatu du La Encina Extremadurako kultur elkarteak. Aurtengo kultur jardunaldiak Isabel Blanco Ollero olerkariak eta idazleak abiaraziko du. Bera izanen da jardunaldien hasierako pregoia irakurtzeaz arduratuko dena. Ondoren, dantzak, gastronomia, musika, jokoak eta bestelakoak uztartzen dituen egitaraua aletuko da.



2018ko herri-bazkaria elkartearen. ARTXIBOA

### OSTIRALA 20

18:30 Pregoa: Isabel Blanco Ollero. Botes de Encina Koro eta Dantzataldea. Ohorezko damei bandak jartzea.

19:30 Urdaiazpiko mozketa erakustaldia, eta ondoren dastatzea. Elkartearen.

### LARUNBATA 21

10:00 Extremadurako gozoen dastatzea.

14:30 Herri-bazkaria, elkartearen.

19:30 Kontzertua: Anhinojo. Iortia kultur gunean.

### DOMEKA 22

11:00 Herri-jolasak, elkartearen.  
13:00 Bazkideendako eta laguntzailerendako auzatea.  
17:00 Mahai jolasak.



**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA  
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



ASTEKOA

XABIER REPARAZ EXTRAMIANA

## Sagarminak

Sagar denboran gaude. Ugari dira sagarrondoak gure aitonenak izandako baraztetan, soroen ezponda eta malda antzuetan. Denboran zehar gure artera iritsitako dozenaka mota desberdinek osatutako bilduma aparta aterako litzake haien zenbatze hutsaz. Motelak, gaziak, gozoak eta minak. Denakaldi berean eta tropelka heldu ohi dira, etxeetako biltegitratze eta sukaldeko kudeaketa mugara eraman dezakete maiz. Harren gutizia diren fruitu emankor hauei bizitza laburra opa zaie, haiekin zerbait egin ezean, bere sagarrondotik urrun.

Sagarren pare, tropelka eta denak batera, haiekin probetxuzko zerbait egiteko denbora eskasekin eta usteltzeko erraztasunaz iritsi ohi dira gure artera dokumentatu gabeko gazte atzerritar ugari. Sagarminen antzera, inoren gustuko ez dira inon. Haiekin etekina atera nahi duenaren harrapakin erraz bilakatzen dira, basoko sagar basatiaren fruituekin egiten diren pattarren antzera, haiek ere useletan jarriko dituzte probegarri den oro eman dezaten.

## HARRAREKIN SAGARRONDOTIK ZETORREN FRUITUAK LASTER DU USTELTZEKO BIDEA

dute. Harrarekin sagarrondotik zetorren fruituak laster du usteltzeko bidea. Bidean kolpatutako sagarrek, erraz amorraren ubeldurak fruitua zimurtzeko aukera. Inongo gaitzik gabe datorren sagarrak ere, ustelekin jartzen badugu, aukera gutxi du hala mantentzeko. Sagar denboran, sagarrak lan.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-ka bidali. Gutunak asteazkena 10:00 baino lehen bidali beharko dira **erredakziora**. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

Hezkuntzan omen erantzuna. Hezkuntzan haiek salbatzeko etorkizuna. Bizitzan zerbait egiteko aukera eman nahi izaten zaie. Lanbide bat erakutsi, hizkuntza, gizarteratze minimo bat... baina esan bezala denbora gutxi izan ohi

## HARA ZER DIEN

### JARAIN! Indarkeria matxistarik gabeko Sakana

#### SAKANAKO MANKOMUNITATEAREN ETA ALTSASUKO UDALAREN BERDINTASUN ARLOAK

Festa giroa despeditzen ari garen honetan, Erasos sexistarik gabeko festen kanpainaren lemaila erreparatu nahi diogu beste behin ere. "JARAIN (Burundako euskalkian ASKATU) eraso sexistarik gabe Sakana libre" izan da aurten, eskualdeko herrietako festa guztietan entzun, ikusi eta gure egin dugun lema, irudi eta aldarrikapena. Udako kanpaina honek, alde batetik, festa egun eta eremuetan emakumeenganako eraso zein jazarpenen aurka herritarrek sentsibilizatzea izan du helburu. Eta bestetik, errealitate honen aurrean,

instituzio zein jendartearen konpromiso irmoa adieraztea.

Festak bukatu dira, baina aldarrikapena ez. Urte guztian zehar gure bizitzako edozein esparrutan, gure ardura eta konpromisoa ikustarazi behar dugu.

Horregatik, zuregana zuzentzen gatzakizku. Zu, Sakanako gizon, emakume, gazte, heldu, elkarteko kide, kirolari, udal ordezkari, eragile, langile, ikasle, irakasle... zure ardura ere bada indarkeria matxistari aurre egitea. Nafarroako legeak arautzen duen bezala, prebentzioan eta sentsibilizazioan zeregin handia dauka Sakanako jendarteak.

Eguneroko jokabide matxisten aurrean ez zaitez

alde batera geratu eta aurre egin!

Prebentzio eta sentsibilizazioaren aldeko urratsetako bat Sakanako 15 Udalek elkarlanean sortu duten euskarri informatikoa dugu: Jarain.app. Bertan, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako edukiak, baliabideak, agenda eta informazio erabilgarria dago eskuragarri.

Ondorengo egunetan jarain.app aplikazioa deskargatzeko aukera izango duzu. Deskargatu, erabili, ezagunen artean zabaldu... eta kontuan izan, indarkeria matxistari aurre egiteko zure zeregina ere garrantzitsua dela.

Jarain Sakana eta Sakana aske batean bizi!



## OBJEKTIBOTIK

### Etxarri Aranazko ibilbideko aurkikuntzak

Joan den larunbatean, eguzkia lagun zutela, 20 bat pertsonen toponimia-ibilbidean parte hartu zuten Etxarriko inguruetatik.

Zuhaitz handien artean pasiatzen eta kontu kontari zebiltzala, hara non aurkitu zuten bost haur hauentzako aterpea. Kattagorriak balira bezala ibili ziren enbor barruan ezkatututa.

Pozik joan ziren etxera, txoko ederra aurkituta eta inguruan dauden bitxikeria mordoa ikasita.



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

#### Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde  
fundazioa@guaixe.eus

#### Diseinu zerbitzua:

GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua  
gk@gkomunikazioa.eus

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
admin@guaixe.eus

#### Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

#### Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

#### LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



#### Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa  
guaixe@guaixe.eus

#### Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa  
kirolak@guaixe.eus  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
kultura@guaixe.eus

#### Maketatzailea:

lune Trece Obeso  
maketazioa@guaixe.eus

#### Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz Bregaña  
publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano  
publi@guaixe.eus

#### ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.  
Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
948 562 107 (Faxa)  
618 882 675



**Nafarroako Gobernua**  
**Gobierno de Navarra**



Cederna-Garalurrek Utzuganeren antolatutako ikastaroa. UTZITAKOA

## Garalurrek zazpi enpresa martxan jartzen lagundu du

Cederna-Garalurrek urtearen lehen erdian 22 ekintzaile lagundu ditu. Ekintzailetza laguntzeko zerbitzua du

### SAKANA

Negozio ideia bat dutenek Cederna-Garalurrek elkartearen aholkularitza jaso dezakete. Hala egin dute 12 emakumezko eta 10 gizonezko aurtengo aurreneko sei hilabeteetan. Ekintzailetza babesteko zerbitzuen bitartez 22 pertsona horiek zazpi enpresa martxan jarri dituzte eta 9 lanpostu sortu dira. Negozio berrien lege-egiturari dagokionez, bost pertsona banako enpresari gisa ari dira eta beste laurak sozieta-te irregular gisa.

Horretaz aparte, Garalurrek epe berean duela bi urte baino gutxiago eratutako bi enpresari babesa eta aholkularitza eman die (bi gizonezko). Eta gauza bera egin du bi urte baino gehiago zituzten hiru enpresekin (bi emakumezko eta gizonezko bat). Bestalde, Arbizun dagoen Utzugane, Sakanako Garapen Zentroan, ekintzaileei eta autonomoei

zuzendutako bi tutorial antolatu ditu Garalurrek: ogasunarekin betebeharrak egiteko zure pape-rak antolatu eta nola egin zure tramiteak ogasunarekin on-line Ziurtagiri Digitalarekin eta Factura Diseinua.

Joan den urteko epe berean Garalurren zerbitzu horrek 18 pertsona lagundu zituen (12 emakumezko eta 6 gizonezko). Babesa eta aholkularitza jaso ondoren sei enpresa sortu ziren, bost pertsona bakarkako enpresari gisa hasi ziren eta beste bik enpresa irregularra eratu zuten. Aurten, beraz, enpresa eta lanpostu sorreran hobetu egin da.

Garalurrek egoitza Utzuganeren du. Astegunetan 08:00etatik 15:20era, pasa daiteke egoitzatik. Hitzordua eskatuta, Altsasun astelehenetan ematen dute aholkularitza. Harremanetarako: 948 567 010 telefonoa edo sakana.admon@cederna.es e-posta.

# Enpresa berri bat lanean ari da Isasian

Alai Ecotermoformados enpresan 13 langile hasi dira lanean, eta hazteko asmoa dute. Elikagaiendako bandejak egiten dituzte. Oraindik Irundik kontrolatzen dute baina hazi ahala bertan arduradunak jarriko dituzte

### ALTSASU

Irungo Plasticos Alai enpresak bere ekoizpenaren zati bat Altsasura ekarri eta enpresa berri bat sortu du: Alai Ecotermoformados. Lantegiko zuzendari nagusi Iñigo Intxausti Mazkianek azaldu digenez, Irundik makina guztiak agorrilean ekarri zituzten eta lanean irailean hasi dira.

Intxaustik esan digenez, "gure teknologia termoformatua da. Eco hori jarri diogu, enpresa berri bezala gaur egun gizarteak eskatzen dizkigun beste gauza horiek eman nahi ditugulako: ingurumenarekin joera arduratsua izatea eta horiek guztiak". Intxaustik azaldu digenez, enpresa berrian birziklatutako plastikoekin edo birziklagarriak diren plastikoekin lan egingen dute. "Hori da gure politika berria. Gaur egun ingurumenarekiko ardura handia baitugu".

Alai termoformados enpresan material horrekin elikagaiendako bandejak edo erretiluak egiten dituzte. "Esaterako, Arrubarrenaren palmerak jartzeko erretiluak". Intxaustik esan digenez, "Nafarroako barazkien dako edo edozein elikadura produktorendako erretiluak fabrikatu nahi ditugu. Hori da helburua".



Enpresa 18.000 m2ko partzela bateko 6.000 m2ko pabiloian dago.

### Kokapenaz

Irungen egiten zuten ekoizpena Altsasura ekarri dute eta horrekin hasi da lantegia lanean. "Asmoa da hurrengo urteetan haztea eta, gutxienez, gaur egiten duguna bikoiiztea". Intxaustik argitu digenez, horretarako "aukerak badaude. Azkeneko urteetan leku faltagatik proiektu asko ezin izan ditugu egin. Guk % 50 baino gehiago Frantzia saltzen dugu. Gure jatorriagatik, Irungen egonda, hori zen gure joera naturala kasik. Ezin izan ditugu proiektu asko kudeatu. Gaur

egun fabrika berri honekin hori guztia berriro hartu dugu. Asmoa da azkar proiektu berri eta itxitako asko mahai gainean jarri eta horietako batzuk aurrera eramatea".

Enpresa berrian 13 altsasuar hasi dira lanean, ekoizpenean. Kudeaketa nagusia oraindik Irundik kontrolatzen dute. "Asmoa da, enpresa desberdina izanda, hau hazten den heinean, bertako merkataritza-arduradunak-eta jartzea. Bitartean ni bezalako langileak goizean Al-

GOIZERO 10:00-12:00

**EGUN ON SAKANA**

08:30 Nafarroako albisteak  
Euskalerrria irratia eskutik

10:00 Prentsa eta eguraldia

10:15 Bateti bestia

10:20 Eguneako albisteak

10:45 Hizketan

11:20 Sarea: Aralar eta  
Karrape irratikoekin

11:55 Agurra

107.3 FM  
**beleixe**

**ZUZENEAN**

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE  
ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS

ZURE NEGOZIOAREN  
ERAKUSLEIHOA,  
BELEIXE IRRATIA. JARRI  
HARREMANETAN GUREKIN!

948 567 074

irratia@beleixe.eus

## Ikasturteak berritasunak

Sakanako ikastetxeetara ikasturte berriak bi berritasun ekarri ditu: Irurtzango Atankondoa eskola publikoko eraikin berria (6 gela eta patio zati bat estalia). Espazio faltari erantzuna eman nahi zaio eraikinarekin. Beste berritasuna Arbizuko Herri Eskolaren eraikin berria da, 3 eta 12 urte arteko ikasleak hartu dituena, orain arte ez bezala.



# Bi hamarkadetako emisioak ospatzeko

Eztanda Irratiak 20. urteurrena ospatzeko musika jaialdi handia antolatu du: 14:30ean Bazkaria; 20:30ean Mugi Panderoa; 22:30ean Kota 0; 00:00etan Los Zopilotes Txirriaos; 01:45ean Ezetaerre eta 03:30ean Tirry & Tery dj-ak

### ITURMENDI

Iturmendiko irrati libreak (FM 107,6 edo [www.eztanda.com](http://www.eztanda.com)) urteurrena ospatzeko musika jaialdi handia prestatu du Iturmendiko Gazte Asanbladak (IGA) larunbaterako. Aurreko bazkarian 115 pertsona elkartuko dira. Bi ekitaldiak frontoian izanen dira. Eztanda Irratiak gaur egun saio propioekin eta beste irratiaren saioen errepikapenarekin osatzen du bere programazioa: ostegunetan 20:00etan Sakandarrock; ostiraletan, 13:00etan, Click bat; astegunetan, 10:00etatik 11:00etara, Iruñeko Eguzki Irratiaren Pasealeku saioa; 11:00etatik 13:00etara Gasteizko Hala Bedi Irratiaren Suelta la Olla eta gainontzeko orduak musika eskaintzarekin betetzen dituzte. Saioa egin nahi dutenek arduradunekin harremanetan jartzea dute.

### Atzera begira

IGA-ren abaroan sortu zen Eztanda Irratia 1999ko udan, haiek



Joan den urteko festa. ARTXIBOA

diotenez, "inolako helbururik gabe abiatu zen proiektua". Artisau eran egindako emisore batek zabaldu zituen Iturmendiko irrati librearen aurreneko uhinak. Udalak udaletxean utzitako lokal batetik hasi ziren

igortzen. Baina han ez zuten asko iraun, eraikinean lanak egin behar zirela eta lekualdatzera behartuta izan zen irratiak. Udal baskula zaharreko etxolan hartu zuen irrati libreak aterpe eta handik urteetan aritu ziren Sakanako guztirako euren musika eta saioen eskaintza zabaltzen.

Eztanda Irratiak web gunearen bidez uhinetik mundu osora igortzera pasa ziren pasa den hamarkada hasieran. 2014eko garagarrian web orria berri zela baliatuz app berria mustu zuten (Eztanda Irratiapp). 2018ko urte hasieran sutea izan zen irratiaren baskulako egoitzako estudioan eta tresneria kaltetu zen. Eta joan den urtean hura berritzeko hainbat ekimen egin zituzten IGAKoek. Sutea eta gero udalak utzita behin behinean lokal batean jarri zuten estudioa baina, gaur egun, Eztanda Irratiaren estudioa eskolak ziren eraikinean dago.

## Aralarko aingerua Orreagaraino joanen da larunbatean

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako kideek erabaki zuten euren moduko erakundeak zituzten Nafarroako santutegiak bisitatuko zituztela. Aralarko aingeruaren irudia hartuta, bisitatu zuten santutegiak bat Orreagako Ama Birjinarena izan zen. Bisitan joan den hamarkadako erdialdean egin zuten. Eta, orduetik urtero errepikatzen dute, Orreagako kofradiak hala eskatuta.

Kofradeek Orreagako bidea hartuko dute larunbatean. Haien zain bideko Gurutzearen ondoan egonen dira 10:45ean. Handik Orreagako santutegira oinez joanen dira eta 10:55ean, santutegiaren aurrean, Kabildoaren harrera jasoko dute. 11:00etan abestutako meza ospatuko dute. Hura despeditzean, ohi bezala, fededunek aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen dute. Santutegitik aterata, kolegiata aurrean dagoen belardian lurren bedeinkapena egingen dute. Bisita Agur Jaunak doinuarekin bukatuko da.



500 bat elkartu ziren. ARAKIL KULTURA

## Giro ederra udari agur esateko ospakizunean

Arakilgo Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako Agur uda festa ospakizuna hartu zuen Itxaspeirik. Eguraldia lagun, haur jolasak izan ziren aurrean, Tramankuluk gidatuta. Ondoren, Lorena Arangoa clownaren saioa izan zen. Jende ugari zegoenez, ermita barruan bitan eman zuen antzezlan. Aurrenekoan 130 ikusle izan ziren eta 100 hurrengoan. Arangoaren saioaren ondoren O'tegis Band and The Neighbours eta Makusai taldeek kontzertua eskaini zuten.

Barran udal ordezkariak izan ziren lanean eta aldamenen izan zituzten Zaporeak erakundeak pintxoak egiten. Jan-edanak agortu egin zuten Itxaspeirik pasa ziren 500 bat pertsonak.





Oscar Moracho del Rio (Osasunbidea) eta Angel Gardachal Ausejo (klinika). UTZITAKOA

## Klinika eta Osasunbidearen arteko historiak trukatu dira

Osasunbideak Josefina Arregira bidaltzen dituen gaixoen klinika-historia kontsultatzeko aukera izanen da

### ALTSASU

Osasunbideak eta Josefina Arregi Klinika Psikogeriatrikoak sinatutako akordioaren helburua gaixoen ongizatea hobetzea da. Pazienteak klinikan dauden bitartean zentroko medikuek, fisioterapeutek eta erizainek erabiltzaileen klinika-historiarako sarbidea izanen dute. Horrek klinikako profesionalei aukera emanen die gaixo bakoitzari egokitutako arreta pertsonalizatu eta integratua hobetzen. Aldi berean, kalitate handiagoko zerbitzua ematen lagunduko die. Datu horietarako sarbidea Na-

farroako Osasun Zerbitzuaren aginduz zentroan sartu diren pertsonen arreta zuzenerako baizik ez da baimenduko. Gainera, klinikak Osasunbidearen eskura jarriko ditu bere instalazioetan artaturiko pertsonen klinika-historiak, datuak eta txostenak, osasun arreta egokia bermatzeko xedez.

Zuzendari kudeatzaile Angel Gardachal Ausejoren hitzetan, "akordioak aurrerapauso handia ekarriko du klinikak aurten pazientei zuzendutako zerbitzuak eta baliabideak eguneratzeko abiarazi duen etapa berrian".

## Gobernu berriaren egituraren sakandarrek segitzen dute

Maitena Ezkutari Artiedak eta Ruben Goñi Urrozek foru administrazioko goi kargu gisa segitzen dute

### SAKANA

Maria Txibite Navascuesek Nafarroako lehendakari berriak 13 departamentuko gobernu egitura antolatu du legegintzaldi honetarako. Aurreko foru administrazioan gobernu ardurak zituzten bi sakandarrek egituraren jarraitzen dute. Maitena Ezkutari Artieda aurreko legegintzaldian Turismo eta Merkataritza zuzendari nagusia izan zen Manu Aierdi kontseilariaren taldean. Agorritik geroztik etxarriarra Ekonomia eta Enpresa Garapeneko Turismo, Merkataritza eta

Kontsumo Zuzendari Nagusia da, Aierdiren lantaldean segitzen du.

Ruben Goñi Urroz, bestalde, Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuaren zuzendari-kudeatzaile izan zen aurreko legegintzaldian. Oraingoan, etxeberrirra Jose Mari Aierdi kontseilariaren lantaldean ariko da, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren Proiektu Estrategikoen zuzendari nagusi izendatu baitute.

# Ersisi, Burundatik Nafarroara zabalduko da

Eskubide Sozialetako Departamentuak modu mailakatuan transferituko du Nafarroa osora Ersisi proiektu europarraren arreta integratuaren eredua. 2017 eta 2019 artean Tuteran eta Burunda mendebaldean jarri zen martxan

### SAKANA

Langabe zaurgarriak (bereziki bermatutako errentaren hartzai-leak) lan merkaturako bidean aktibatzeke, Nafarroako Gobernuak elkarlanean jarri zituen bere gizarte eta enplegu zerbitzuak aurreko legegintzaldian. Haien gizarte-inklusio eta inkorporazio soziolaboralerako esku-bideak lagundu nahi ditu Ersisik. Horretarako, diagnosirako tresnak sortu dituzte. Haien bidez pertsona onuradunen lehentasunezko beharren arabera segmentatu egiten dituzte. Aldi berean, tresnek gizarte eta enplegu zerbitzuen erantzun koordinatu eta integratuak planifikatzen laguntzen dute.

Ersisi egitasmoaren oinarrian Bermatutako Errentaren Legea dago. Nafarroako Gobernuan uste zuten ekonomia-babesa jasotzen zuten pertsonak ez zutela lan-merkaturan sartzeko desaktibatuta egon beharrik. Laguntzarekin batera, pertsonalizatutako babes integral eta jarraitua emanda aktibaziorantz gidatu zitezkeela uste zen.

Proiektua Tuteran eta Burunda mendebaldean martxan jarri zuten. Hiru urteko indarraldien ondoren proiektua hil honetan despidituko da. Baina gobernutik jakinarazi dutenez, modu mailakatuan beste herrietan zabaltzen hasi dira. Bestalde, Eskubide Sozialetako Departamentuak Ersisiri buruzko jardunaldia antolatu du eta han Nafarroako Unibertsitate Publikoako Soziologia eta Gizarte Lana Departamentuak (NUP) Ersisiren ebaluazioari buruzko emaitzak jakinarazi ditu.

### Ebaluazioaz

NUPen egindako proiektuaren ebaluazio emaitzek bere eragin positiboak buruzko ebidentziak ematen dituzte. Ersisiren onuradun izan diren 502 pertsona eta antzeko egoeran zeuden bes-



Ebaluazioaren aurkezpenean Javier Paz izan zen, mankomunitateko burua. UTZITAKOA

## ORIENTAZIO ETA PRESTAKUNTZA BALIABIDEEN ERABILERA HANDITU EGIN DA

te horrenbeste pertsonen aldeko konparazioa egin dute proiektua ebaluatzeko. Ikerlarien arabera orientazio eta prestakuntza baliabideen erabilera handitu egin da Ersisik erabiltzaileen artean. 502 onuradunen % 70ak ez zuen orientazio eta prestakuntza baliabiderik erabili proiektua martxan jarri aurreko urtean. Ikerlariak gaztigatu dutenez, Ersisin parte hartu bitartean enplegurako aktibatzeke zazpi akzioetan parte hartu dute batz bestek. Aldi berean, ikerlariak sumatu dute enpleguaren bilaketa aktiboko zerbitzuekin lotura estutu dela. Izan ere, harremana proiektuan parte hartzeko epea pasa eta gero segitzen duelako. Konparaziorako taldean ez da halakorik ikusten.

Ikertzaileek "zuhurtziaz" esan dute lanarekiko harremanetan ere jokabide hobea izan dutela

Ersisin parte hartu dutenek. Esku-hartzea despiditu eta urte erdira lan merkaturako kontrol taldean arituta bako bako gehiago ziren Ersisitik pasatukoak. Proiektuan parte hartutako % 32k lan kontratu bat lortu zuten Ersisin parte hartu eta hurrengo seihilekoan. Ebaluazioaren arabera enplegu kalitate hobea (lanaldi osoa) izan dute proiektukoek kontrol taldekoek baino.

Azkenik, bermatutako errentaren garapena positiboa izan da. Izan ere, proiektuko parte-hartzaileen laguntza jasotakoan hilabeteen batz bestekoa jaitxi egin zen, baina kontrol taldean ez zen halakorik gertatu.

M<sup>a</sup> Carmen Maeztu kontseilariak nabarmendu du "gizarte eta enplegu zerbitzuen berrikuntza sustatzeko, baita egungo gizarte arazoetara egokitzeko" proiektuak izan duen garrantzia. Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen koordinatzaile Arantxa Erbitik nabarmendu zuenez, pertsonen beharretarako egokituagoak izanen diren erantzun integralagoak emateko, gizarte eta enplegu zerbitzuen dako aberasgarria dela profesio ikuspegi desberdinak partekatzea.

## 11/13 sumarioko aldeek akordioa eginda, Balda herrian

47 auzipetuek egotzitakoa onartu dute. Akordioa "kolektiboki" adostu dute. Bi, 5 hilabetez, kartzelara

ARBIZU

Espainiako Auzitegi Nazionalen 11/13 sumarioko epaiketa atzo hasi eta bukatu zen. 47 auzipetuak, Miguel Angel Carballo fiskalak, Dignidad y Justicia eta Asociación de Víctimas del Terrorismo akuzazio partikularrek akordioa lortu zuten. Horren ondorioz 47 auzipetuetatik 45ek kartzela saihestuko dute. Izan ere, "era-kunde terrorista batean parte hartu izana" onartu dute eta ondorioz fiskalak haiendako urte eta erdi eta bi urte arteko espetxe zigorra ezarri die. Aurrekaririk



Balda herrira bueltan. @FRANHERRIAN

ez zuten ez dute kartzelara joan beharko.

Espetxera joan beharko ez duten artean dago Fran Balda Araña. Fiskaltzak harendako 20,5 urteko espetxe zigorra eskatzen zuen eta akordioaren ondorioz 1,7ko zigorra jaso du. Gainera, arbizuarrak 1.800 euroko isuna ere ordainduko du atxilotu ondoren ezarri zizkioten "behin behineko neurriak" bete ez zituelako (euskal presoan aldeko egitasmoetan parte hartzeko debekua jarri zioten). Auzipetu guztiak, aldi berean, 3 edota 4 urtez kargu publikoetan ezin izanen dute lan egin, eta administrazioaren arloan inhabilitatuta izanen dira.

Arbizuarrek herriko plazan Baldari harrera egin zioten astelehen arratsaldean eta haren azalpenak jaso zituzten.



Amaia Amilibia eta Bel Pozueta Nafarroako Parlamentuan. @ALTSASUGURASOAK

## Gurasoak Nafarroako Parlamentutik Europakora

ERCK Europako Batzorde berriari eskatu zion Altsasuko Auzia gertutik segitzeko asteleheneko bilkuran

ALTSASU

Altsasu Gurasoak taldeko Amaia Amilibia eta Bel Pozueta Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko Harremanetarako Batzordean agerraldia egin zuten ostiralean. Auziaren berri ematearekin batera eskatzera joan ziren gurasoak: "ausartak izan daitezela. Gauzak zehazten hasi daitezela. Nafarroako gizartearen dagoen sentipenari erantzun diezaiotela: neurrigabetasun handia da eta bukatzeko garaia da. Politikoen esku dagoena egin dezatela, bai Nafarroan, bai Madrilen". Pozuetak gaineratu zuten, "konstituzio-parametro guztiak gaintuz, eredu zigor jarri diete", bereziki, hiru urteko espetxealdi prebentiboa salatu zuten. Baita haren jatorria izan zen "terrorismo" kontzeptuaren erabilera "hutsala".

Amilibiak, berriz, "terrorismoa" dela eta Altsasuko Auzian urratu diren oinarriko eskubideak zerrendatu zituen: baldintzapeko askatasunerako eskubidea, errugabetasun printzipioa, intimitatea eta ohorea, eta, bereziki, epaiketa justu bat izateko eskubidea. Parlamentariei gaitzatu zien: "espetxe zigor handiak izanda ere, gertaeretan gure seme-alaben ez egiletza ezta parte-hartzea ere ez dira demostratu. Lesioei garrantzia kendu gabe, gau penagarri hartan izandako lesio larriena orkatila baten haustura izan zen, identifikatu gabeko pertsona batek egina. Gainerako lesioak lesio arinak izan ziren".

Haiekin batera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbide irakasle eta abokatu Paz Frances izan zen. Irakasleak hainbat lege-kontu izan zituen hizpide. "Auzi honetan giza-eskubideen urraketa etengabea izan da. Lege-desadostasunez haratagokoa den zerbait da hau, giza eskubideen auzi bat da". Auzipetuei ezarritako zigoren proportzio falta eta espetxeraztearen ondorio psikosomatikoen berri eman zuten Francesek. "Auzipetuak gure lurraldean dauden gaitz pila baten pagaburuak sentitzen dira. Zigor handiak dituzte. Zigorrek ez dira dohainik, pertsonengan hainbat efektu dituzte. Gainera, euren bizitzaren erdialdean daude". Atxiloketengatik, epaiketengatik eta zigoren neurrigabetasunagatik auzipetuek biktimizatuta daudela azaldu zuten. "Ondorioak ezagutuak, artatuak eta zainduak izan behar dute".

Estrasburgon izan ziren Edurne Goikoetxea eta Bel Pozueta astelehen eta asteartean. Europako Parlamentuko Europako Ezker Batuko eta Europako Berdeak taldeetako ordezkariak bilerak egin zituzten. Parlamentari ugari entzun zituzten haien azalpenak. Auziaren berri eman zieten eta, aldi berean, parlamentariei eskatu zieten Europako Batzordeari auzia "gertutik" jarraitzea eskatzeko. Izan ere, Frans Timmermansek 2017ko irailaren 29an auziari hori egiteko konpromiso pertsonala hartu zuela gogoratu zuten.

### Zergatik akordioa?

Hasieratik garbi genuen edozein bide esploratzeko aukera. Fiskalak zigor eskaerak egin zituenean, akordioarako proposamenarekin leihobat zabaldu zen. Orduan abokatuei esan genien bide hori esploratzeko. Joan ziren eta esan zieten ezetz, jada ez zela akordioarako aukerarik, biktimen elkarteek zuzendaritzak aldatu zituztela. Horrela orain arte.

### Eta akordioa zergatik?

Guk hasieratik garbi geneukan Espainiako Auzitegi Nazionalera gindoazela eta handik ez genuela inongo justizia motarik jasoko. Hasiera-hasieratik ere garbi geneukan ere gure helburua zela jendea kartzelara ez sartzela. Horren inguruan edozein proposamenetarako zabalik geunden. Izan ditugu eztabaidak gure artean. Denon artean erabaki dugu irtenbide egokiena zela 47endako.

**Esan duzue: iraganeko formulak alde batera utzi eta etorkizunerako atek zabaldu nahi dituzuela akordioarekin; konponbideak bilatzeko bidea sustatu nahi dituzuela eta zigor eskaera neurrigabeak zirela eta espetxea saihestea nahi zenutela.**

Herrira sortu zenetik, eta azken urteetan bizi dugun egoera ikusirik, hori izan da gure helburua. Herrira jaio zen kaleak



bete eta kartzelak husteko. Eta esan duzuna: eskaerak neurrigabeak ziren, injustizia handia zegoen atzetik, Espainiako Auzitegi Nazionala, 601 urteko espetxe zigorra eskatzen ziguten. Auzitegi horretatik ezin dugu justiziarik espero. Zigor handiko arriskua zegoen. Militante politikokak gara. Badakigu Euskal Herrian zer gertatzen ari den, nondik nora goazen, karteletan zer mugimendu dauden eta abar. Erabaki hau hartzea tokatzen zen eta hala egin dugu.

### Eta orain zer?

Karteletan 248 preso daude, Arantza Zulueta eta Jon Enparantzarekin 250. Epaiketa hauek, gurea, anakronikoak dira. Oraindik 248 euskal herritar preso egoteak ez du inolako logikarik. Haiek eta iheslari guztiak etxeratzeko ahalegin handia egin behar dugu. Guk kanpaina guztian hori

adierazten saiatu gara. Guk kalean beharko genukeela. Baina indar handia jarri nahi genuen denok herrian egon behar genuela. Hori dagokigu. Denak eskutik helduta kanpaina honetan behetik gora egin dugun lan hori guztia inportantea izan da. Herrietan kristoren elkartasuna jaso dugu. Ekimen pila egin dira, berritzaileak, ilusioegileak... Hori da behar duguna. Fase bat itxi beharra daukagu. Preso eta iheslariarik gabeko Euskal Herri bat ezagutzeko beharra dugu. Herri honek behar du benetako bake egoera bat. Ez orain duguna. Borrokan eta lanean segitu behar.

### Honek inhabilitazio eta hainbat tokitan ezin eragitea ekarriko du, ezta?

Akordio honek hori suposatzen du, bi lagun kartzelara joanen direla. 16 lagun desgaitu dituzte, horrek suposatzen duen guztiarekin. Eztabaidak izan ditugu, pertsonaletik kolektibora pasatuz. Eztabaida politikoki kokatuz erabakiak hartu ditugu. Arduraz jokatu da. Erabakiak kosta egiten dira baina, azkenean, egin dugu. Uste dugu egin beharrekoa zela, egokiena zela. Bakoitza guretik, beti jendearekin, preso eta iheslariak etxean egoteko lanean segituko dugun 47 militante politikok gara. Ez dakit nola eskertu jendeak egin duen guztia: mila esker!



Auzipetuen gurasoetako batzuk auzitegiara sartu ziren. UTZITAKOIA

## Altsasuko Auzia epaiaren zain, hirugarren aldiz

Espainiako Auzitegi Goreneko bistan abokatuek absoluzioa eskatu zuten, fiskalak epaia berrestea

### ALTSASU

Abokatuek aurretik epaitegian idatziz absoluzioa eskatuz aurkeztutako helegitea ahoz defendatzeko hamarna minutu izan zituzten. Guztiek eskatu zuten altsasuarren absoluzioa. Eta horretarako hainbat argudio eman zituzten: Espainiako Auzitegi Nazionalako Concepcion Espejel epailearen errekusazioa, auzipetuen errugabetasun-presuntzioaren urraketa, salatzaileen kontraesanak, egotzitako delituendako emandako zigorrak handiegiak zirela eta proportzionaltasun printzipioa urratzen zela, auzipetuei epaian egitate zehatzik ez egotea, Guardia Civila "ikertzaile eta biktima rolak nahastea" edota auzipetuak identifikatzeko egindako argazki eta talde ezagutze-saioko irregulartasunak.

Zortzi auzipetu altsasuarren abokatuek haien defentsan argudio gehiago erabili zituzten, esaterako: frogak eta lekukoak ez onartzea, defentsa gabezia, zigortzeko nahikoa probak ez izatea, epaile naturalerako eskubidea urraketa, prozesuak ez zituela beharrezko bermeak izan, lekukoek auzipetuetako batzuk liskar gunetik kanpo kokatu zituztela eta ez zela kasurik egin, Iñakik grabatutako bideoan sargentuak ez dituela auzipetuak identifikatzen, Guardia Civila ez dela kolektibo zaurgarria eta ideologia diskriminazioa argudiatzeko ez duela zentzurik, nagusitasun astungarria gaizki ezarri zela gaineratu zuten. Ollek

"proportzionaltasuna" eskatu zuten.

### Fiskaltza eta akusazioak

Fiskalak esan zuten epaiketan errugabetasun printzipioa errespetatu zela. Eta gogoratu zuten auzitegiari dagokiola zein lekuko onartu edo ez erabakitzea. Nabarmendu zuten epaimahaiak aho batez ebatzi zuela akusatuak erasotzaileak zirela. Espejelek Guardia Civilaren domina jaso izana eta agente baten bikotekidea izatea ez dela baldintzagarria esan zuten. Fiskalaren ustez "frogatutako egitateek argi uzten dute guardia civilak zirelako" eraso zituztela. Horregatik, ideologia astungarriari eustea aldarrikatu zuten. Fiskalak ez zuten terrorismoa sekula aipatu eta ezarritako zigorrak mantentzea eskatu zuten.

Akusazioek ere defentsen helegiteak ezestea eskatu zuten. Haren iritziz, errugabetasun presuntzio urraketarik ez zen izan. Asociacion Unificada de Guardias Civilesen fiskaltzaren eta Estatuko Abokatuaren esanak bere egin zituen. Covitek azaldu zuten herenegungoa 3. epaiketa zela. Ezagutze-saioak bere garaian ez zirela inpugnatu eta irregularitasunak epaiketa aurretik salatu behar zirela eta ez zela hala egin esan zuten. Nagusitasun astungarriaren alde egin zuten Covitek, "erasoa hasi zenean gutxienez 25 pertsonen biktimak inguratzen baitzituzten". Ideologia astungarria ere onartzea eskatu zuten.

# "Erabakia lehenbailehen jakin nahi dute"

## BEL POZUETA ALTSASU GURASOAK

Aste hasierako Estrasburgoko eta herenegungo Madrilgo egonaldiak lotu ondoren etxetik aste honetan bizi izandakoaz aritu gara altsasuarrarekin

### ALTSASU

#### Espainiako Auzitegi Nazionaletik kanpo egiten den lehen auzia.

Bai. Esaten zen Gorenak gauzak hartzeko beste irizpide bat zuela. Zuzentzeko aukera zegoela. Gure kasuarekin ez dakit zer gertatuko den, aldaketa sumatuko den ala ez.

#### Itxaropena herenegun eta gaur, ez?

Guk jendearen babesetik indarra hartu dugu. Eta jarraituko dugu. Ikusiko dugu epaia noiz etortzen den. Edo zer ekartzen duen. Guk justizia aldarrikatzen segitu behar dugu. Nahiz eta justizia jada ezin den gauzatu, gure semeek kartzelan luze daramatelako, segituko dugu, ahalik eta lasterren bukatzeko.

#### Abokatuak argi aritu ziren.

Eskubideen urraketa oso handia izaten ari da. Espainiako Auzitegi Nazionalen entzundako gauza bera entzun genuen. Ez dago modurik esandakoari gehitzeko. Aldi berean, atzean zer argudio politiko dagoen entzuten dugu, Guardia Civilaren hitzak zer nolako indarra duen eta nola baldintzatzen duen prozesu guztia. Hor dago gakoa. Gorenak zer egingen duen. Zer eragin izanen duen fiskalak esandakoa: Espainia, Konstituzioa eta Erregea. Ez dakit.

#### Zer transmititu zenieten parlamentari eta senatariei? Zer jaso zenuten?

Bai Madrilan bai Estrasburgon eskatzen duguna da Espainiako Estatuan dauden eskubide urraketa salatzea. Salaketa hori hainbat erakundetara eramatea. Ikusten dugu gure kasua erabat politikoa bihurtu dela. Politikoa bada borondate politikorekin amaitu daiteke.

#### Espektxeratuak nola daude?

Guri gertatzen zaigun moduan beraiek ere errespetuz eta zuhurtasunez ikusten dute. Aldi berean, beldurrez. Euren bizitzekin, euren etorkizunarekin zer gertatuko den hor erabakiko da. Bertigoarekin. Zer erabakiko



Bel Pozueta Madrilan hizketan. UTZITAKOIA

den lehenbailehen jakin nahi dute.

#### Epaia noiz etorriko da?

Ez dakigu. Badirudi azkar jasoko dugula, gure semeak kartzelan daudelako. Aldaketa onerako izanen balitz, berria azkar jasoko genuke. Epaia berri filtrazioen bitartez jakinen dugu berriro ere. Hori eskubide urraketa da. Seme-alabek lehenak izan behar dute.

#### Bitartean eutsi behar.

Dudarik gabe. Epaia arabera, buruan dugu ere mobilizazioak antolatzea. Horregatik, orain arte gurekin egon den gizarte-ari adi egoteko. Gu ez gara etxean geldituko.

**BERTSO BAZKARI**

**DASTAKETA**




**JON MAIA**

**27€**

**JULIO SOTO**

**UDAZKEN / NEGUKO KARTA BERRIAREN AURKEZPENA**

**EGUNA: URRIAK 5 LARUNBATA**  
**ORDUA: 14:00 ETAN**  
**ARBIZUKO EKOKANPINEAN**

Izen ematea ☎ 848 470 922 edo info@campingarbizu.com

# Hezkidetzan hezi, berdintasunean bizitzeko

Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak helburu horrekin hitzaldiak eta jarduerak antolatu ditu udazkenerako. Izen ematea hilaren 27ra arte zabalik dago berdintasuna@sakana-mank.eus e-postan edo 948 464 867 telefonoan

## SAKANA

Gizartearen balioak hezkidetzaren bidez aldatu eta horrela emakumezkoen ahalduntzea eta parte hartzea sustatzeko helburuz, Sakanako Mankomunitateko Berdintasun Zerbitzuak tailerrez eta hitzaldiz osatutako programa antolatu du. *Hezkidetzan hezi, berdintasunean bizitzeko* leloa du hezkidetzaren inguruan antolatutako zikloak. Tailer batek eta hitzaldi sorta batek osatzen dute zikloaren ardatza.

Tailerrak Hezkidetzaren eta tratatu onak hezkuntza ez formalean izenburua du. Oihana Gallo San Roman teknikariak azaldu digunez, "hezkuntza ez-formaleko begiraleei, kirol monitoreei, kirol elkarteetako kideei, gazte txokoko begiraleei eta interesa duen guztiei dago zuzenduta. Izena ematen dutenek Hezkidetzaren inguruko oinarri teorikoa barnerratu dute eta patriarkatua eta botere harremanen logika ulertuko dute". Horretaz aparte, tailerrak balioko du "zaintza erdigunea jartzeko eta horrela norbanakoen eta taldearen ahalduntzea sustatzeko. Gainera, prebentzioa ere landuko da, elkartasun estrategiak landuz". Gallo aurreratu du tailerrak "metodologia parte-hartzailea, aktiboa, kritikoa, dinamikoa eta



Gizonezkorik gabeko jolas parke bat. ARTXIBOA

feminista" izanen duela. Tailerra Irurtzunen lastailaren 2an eta 9an izanen da, Etxarri Aranatz lastailaren 1ean eta 8an eta Olatzagutian irailaren 30ean eta lastailaren 7an.

Gallok, bestetik, jakinarazi digunez, haurrekin hartu emana duten helduei eta familiei zuzendutako hitzaldi sorta ere antolatu du. Hezkidetzaren eta tratatu onak familian izenburua dute. Irurtzunen lastailaren 2an izanen da, Etxarri Aranatz lastailaren 9an eta Olatzagutian lastailaren 3an. Bai hitzaldietan bai taile-

rretan parte hartzeko aurretik izena eman behar da.

Zikloak abenduan izanen du segida. Altsasuko Iortia kultur gunean ikusgai izanen den Itsaspeko bihotzak haur eta gazte literatura aretoan ibarreko ikasleendako tailerrak izanen dira goizetan, eta familiendako saio osagarria arratsaldean. Literatura-areto horren bitartez genero berdintasuna eta hezkidetzaren landuko dira. Gainera, eguberrietan jolas eta jostailu ez sexisten inguruko kanpaina antolatuko du zerbitzuak.



Altsasuko festetan Baldak eta Salinasek libre behar zutela aldarrikatu zuten.

## Parlamentuan kateatuta, jazarpen sindikala salatzen

LABeko zortzi kide Nafarroako Parlamentuko leihotara kateatu ziren sindikalismoa ez dela delitua salatzen

### ALTSASU

2018an Iruñeko La Sangiovesa jatetxean lan gatazka izan zen. LABeko kideak parean pankarta zabaldu, barnera sartu, pegatinak itsatsi, kartelak erakutsi eta bozgorailu bidez kontsignak oihukatu zituzten. Epailearen iritziz ekintza horiek bakarka egin izan balira, ez zuketzen zigorrik mereziko. Baina denak batera egin zirenez, "koakzioa" dira eta zigorra merezi dute "askatasun sindikalaren esparrua" gainditzen dutelako, bozgorailuarekin protesta dinamizatzen aritu zen Imanol Salinasi bete beharreko 21 hilabeteko espetxe zigorra jarri zion epaileak maiatzaren 16an.

Sindikatu abertzaleko abokatuak epaiari helegitea jarri dio, "epai hori eskandaluzkoa" delako. Egunotan ari dira errekurtsioa aztertzen ari dira. Hori dela eta, kateatu ziren LABeko kideak

Nafarroako Parlamentuan asteartean.

LABeko Iruñerriko idazkari Ixaso Torregrosak esan zuenez, "borroka sindikala aurrera kanpainaren bidez, Imanol Salinasekin egin nahi duten injustizia salatu nahi du, bai eta esplotazioaren zein prekarietatearen aldeko bere jarrera berretsi ere". Ekintza horrekin sindikalistek Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari galdetu nahi izan zioten "zein jarrera duten gertatzen ari den honen inguruan, eta nahi dugu jakin zer egingen duten. Hau guztia bereziki larria baita".

Imanol Salinasi babes emateko kontzentrazioa egingen da Iruñeko Justizia Jauregiaren parean ostiralean, 12:00etan. Irailaren 28, 17:30ean, berriz, Iruñeko autobus geltoki zaharretik manifestazioa abiatuko da.

## Bi haur eskoletan lanak egiteko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Nafarroako 17 haur eskoletan lanak egiteko 193.421,5 euro banatu ditu. Kopuru horretatik 34.955 euro (% 18,07) Sakanara etorri dira; Lakuntzako eta Arbizuko udalena den Kattuka eta Altsasuko Udalaren Txirinbulo haur eskolendako. Arbizun dagoen Kattuka haur eskolaren kanpoko aldean

aterpea egiteko 20.754 euro eman zituen Hezkuntza Departamentuak.

Altsasuko Txirinbulo udal haur eskolarako 14.201 euro bideratu ditu Nafarroako Gobernuak. Diru horrekin bost lan finantzatu ditu Altsasuko Udalak: eskolako aterpea eta patio mugatzeko hesia jartzea, bularreko haurren patio zatia PVCz estaltzea, harea putzua babestea, patioaren zati batean kautzoa jartzea eta sarreraren segurtasun pertsiana jartzea.

## Lan-heriotza salatuta

Viscofan taldeak Kasedan duen lantegian lan istripua izan zen larunbatean eta horren ondorioz langile bat hil eta beste bat larri zauritu zen. Lan-heriotza salatu eta hildakoaren senide eta lankideei elkartzatua adierazteko Viscofaneko Urdiaingo langileek lantegi aurrean kontzentrazioak egin zituzten astelehenean, ordu erdi txanda bakoitzeko.



## Beraza eta San Martin Intza-Ttutturreko podiumean

**MENDI LASTERKETAK** Aritz Munarriz 6.a izan zen, Beraza 2. beteranoa eta San Martin 3. beteranoa

Larunbatean Intza-Ttutturre Kilometro Bertikala jokatu zen, Euskal Herriko eta Nafarroako Km Bertikaleko Txapelketa. Intzatik aterata (319 m), Ttutturre (1.282 m) igotzea zen helburua, (3,85 km eta 963 m. desnibela).

Gizonezkoetan Iban Murua izan zen lehena (35:45). Proba irabazi zuen baina ez, ordea, Euskal Herriko Txapelketa, federatu gabe dagoelako. Aritz Munarriz etxarriarra 6. postuan (40:10) sailkatu zen eta Jose Luis Beraza uhartearra 26.a. Beraza probako bigarren beteranoa izan zen, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketan eta Euskal Herrikoan bigarren beteranoa.

Emakumezkoetan Maite Etxezarretak irabazi zuen (43:53). Erkuden San Martin etxarriarra 9.a izan zen helmugan (56:23), Nafarroako Txapelketako 3. emakume onena izan zen, eta Euskal Herriko Txapelketako 3. emakume beteranoa.

### Sakandarrak Ttutturren

Txukun ibili ziren gureak.

#### Gizonak

1. Iñigo Alzola	37:42
6. Aritz Munarriz	40:10
26. Jose L. Beraza	43:47
45. Alatz Agirre	45:38
74. Arkaitz Munarriz	50:36
86. Garat Flores	52:29
90. Fran Araña	52:59
95. Kepa Gordo	54:32
104. Mikel Iriarte	57:27
119. Amaur Ginea	1:15:53

#### Emakumeak

1. Maite Etxezarreta	47:53
9. Erkuden San Martin	56:23

\*Oharra: Sailkapenean ez zen korrikalarien jaioterrien daturik agertzen eta gerta daiteke sakandarren bat zerrendan ez agertzea.



Erkuden San Martin etxarriarra, Beriain igotzeko ahalegin betean. Aurten ere parte hartzekoa da. ARTXIBOA

## Uhartetik aterata Beriain helburu, azkar-azkar

**MENDI LASTERKETAK** Igandean XI. Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala jokatu dute 226 korrikalarik goizeko 10:00etatik aurrera. Eguraldi nahasia espero da baina hala ere korrikalariak animatzeko jendetza igoko da Beriaingo maldetara

Aurten 11 edizio beteko ditu Aralar Mendi Elkarteak antolatzen duen Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalak. Igandean jokatu dute, eta 226 korrikalari daude izena emanda, probak duen erakargarritasunaren isla. Izan ere, Beriaingo proba honek badu zer edo zer; bitxia da, gogorra eta ederra. Horregatik, eta urtero bezala, puntako mendizaleak bilduko dira irteeran.

Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako balia garria da eta, horretaz gain, Euskal Mendi Federazioaren Euskal Herriko Mendi Errankinerako puntuagarria da.

Egunotan guztia behar bezala prestatzeko lanetan murgilduta daude Aralar Mendi Elkarteak kideak. Uharte Arakilgo Udalarren eta Nafarroako eta Euskal Mendi Federazioaren laguntza dute, eta herriko eta gertuko denda, taberna, komertzio eta babesleen bulkada.

#### Goiz hasiko da mugimendua

Goizetik jendea bilduko da Uharte Arakilen. Dortsalen banaketa plazan egingo da, goizeko 8:00etatik aurrera. Antolakuntzak ere korrikalarietako arropa eta materiala igoko die helmugara, eta material bilketa 9:00ak arte egingo da.

#### 5 km gogor bezain eder

Korrikalarietako goizeko 10:00etan ekingo diote probari. Lehen banaketa ateratzen ziren korrikalariak, kronometratutako proba zen, baina azken urteetan hartutako erabakiari jarraiki, aurten ere korrikalari guztiak elkarrekin aterako dira Uharte Arakilgo frontoitik (471 m), ohiko lasterketa batean bezala. Beriain-

**ERREKORRA GAINDITUZ GERO, 300 EURO GEHIAGO LORTUKO LITUZKE TXAPELDUNAK**

le mordo biltzen da Beriaingo bidezidor, xenda eta maldatan, azken malda gogorretan bereziki. Igandean eguraldi nahasia espero da, baina, hala ere, aurrekusten da jendetza bilduko dela ibilbidean barna.

Aurreko urtean Iban Murua izan zen Beriainera azkarren iritsi zen korrikalaria (40:37), bere entrenamendu kide Aitor Osari lekukoa hartuz. Hala ere, ez zuen lortu Osaren errekorra gainditzea (39:54). Emakumezkoetan, Oihana Azkorbeitiak ez zuen areriorik izan eta nagusitasun handiz gailendu zen, errekorra gaindituz (48:54). Murua aurten ere lehiatzekoa da eta bera da faboritoetako bat, baina Azkorbeitiak ez da ariko.

#### Errekorra gainditzen duenarendako 300 euro

Sari ematea Uharte Arakilgo plazan izanen da, 13:15 aldera. Bertan ere indarrak berreskuratzeke auzate bikaina izango dute zain korrikalarietako. Sariei dagokienez, txapelak, gizonetako eta emakumetako, 300 euro, garaikurra eta txapela lortuko dituzte, bigarrenek 150 euro eta garaikurra eta hirugarrenek 100 euro eta garaikurra. Lehen hiru beteranoak oholtza gainera igoko dira garaikurra jasotzera, eta baita ere junior mailako txapelak. Errekorra gaindituz gero -39:54, Aitor Osa, 2015ean; eta 48:54, Oihana Azkorbeitiak, 2018an-, 300 euroko saria dago jokoan.

Antolakuntzak festa eder honetan parte hartzera gonbidatzen ditu sakandarrak. Izan ere, sakandar asko lehiatuko dira, eta haiei animoak emateko Beriainera edo Uharte Arakilera gerturatzeko deia egin dute. Goiz pasa bikaina.

Iraunkorrak eta kalitatezkoak

Material naturalak, toxikorik gabekoak

Opari bikaina etxeko txikientzat

[www.ZeroHiru.com](http://www.ZeroHiru.com)  
On line denda



**Haur txikien jolaserako bereziki diseinatuta dauden objektuak**

# Ergoienako Bira Dorraon erabakiko da bihar

**ATLETISMOA** Bihar, larunbatean, jokatuko da Ergoienako XV. Bira. Txikienen probak 10:00etan hasiko dira eta helduena 11:00etan. Aurten zendutako Joxemari Mercero korrikalaria gogoan, Merceroen Oroimenezko 1. Saria izendatu dute Ergoienako proba

Korrikalariak hitzordua dute Dorraon. Ergoienako Udalak antolatuta, XV. Ergoienako Bira jokatuko da bihar, larunbata goizean. Kirola eta atletismoa bulkatzeko eta herriei bizia emateko asmoz Ergoienan ekitaldiak antolatuzko, horretarako antolatatu zen Ergoienako Bira, eta aurten 15 urte beteko ditu ekimenak. Txandaka egiten da antolakuntza, eta aurten Dorraon dagokio. Beraz, Dorraon izango da XV. Ergoienako Birako hasiera eta helmuga.

Goizeko 10:00etatik aurrera txikien probak jokatuko dira Dorraon. Eta 11:00etan, 8,5 km-ko proba gogorrari ekingo diote nagusiek. Ergoienako hiru herriak lotzen ditu lasterketak, ibilbide oso gorabeheratsuan. Maldak eta aldapak xenda eta eremu lauekin tartekatzen dira, eta lasterketa gogorra egiten da, baina, aldi berean, oso polita. Aurten, Dorraon hasi, Unanuraino heldu, handik buelta har-



Aurreko urtean Unanun jokatuko zen Ergoienako Bira.

tu eta atzera ere Dorraotik pasako da lasterketa, Unanuraino jo eta hura gainditu eta gero, Lizarragara heltzeko. Ondoren, helmugarantz joko dute korrikalariak, Dorraora (8 km). Iaz Unanun jokatuko zen proba eta

irabazleak Ibai Alda hernaniarra (32:53) eta Maite Beregaña uhar-tearra (43:51) izan ziren.

**Merceroen izena hartuko du** Joxemari Mercero korrikalari unanuar beteranoak aurten utzi

gintuen. Zendu zenetik, bere alde egindako omenaldiak zenbatezinak izan dira. Ergoienako Biran keinu sentikor bat egin nahi izan diote, eta aurtengo Ergoienako XV. Bira Joxemari Merceroen Oroimenezko 1. Saria izango da.

Bukaeran korrikalariak auzate ederra izango dute zain. Sari banaketan, irabazleek trofeoak eta bertako produktuak jasoko dituzte, eta korrikalarien artean bertako produktuen loteak zozketatuko ditu antolakuntzak. Lasterketarekin batera Ergoienako Eguna ospatuko da, eta ondoren bazkaltzera bilduko dira ergoendarrak.

## Izena ematea bihar, goizeko 9:00etatik hasita

Ergoienako Biran parte hartu nahi dutenek bihar bertan eman beharko dute izena, Dorraon, goizeko 9:00etatik aurrera.

## Sakanako Koparako puntuagarria

XV. Ergoienako Bira Sakanako XVI. Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako puntuagarria da, apirilaren 6an jokatuko zen Ziordiko herri krosarekin, ekainaren 15ean jokatutako XVI. Aitzkozar Krosarekin eta urriaren 26ean eta abenduaren 8an jokatuko diren Sakanako XIX. Herri Lasterketarekin eta Barricarteren XXXIX. Oroimenezko Oinezko Lasterketarekin batera. Eguna, Javi Moreno eta Erkuden San Martin daude buruan.

## FUTBOL PREFERENTEA

1. JARDUNALDIKO EMAITZA	
Lagun Artea - Ilunberri	3-0
San Jorge - Etxarri Aranatz	5-1

SAILKAPENA	
PREFERENTEKO 1. MULTZOA	
1 San Jorge	3
3 Lakuntzako Lagun Artea	3
16 Etxarri Aranatz	0

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
16:30 Etxarri - Mutilbera B (San Donato)	
17:30 Ondalan - Lagun Artea (Villatuerta)	

## Lagunek irabazi eta Etxarrik galdu

Kategoria berria bikain estreinatua zuten Lagun Arteak Lakuntzan. Arbitroak txartel gorria ateratu zion Irunberriko Aguerri, eta falta zuzena jaurtikiz Unai Zubiriak lehen gola sartu zuen. Ondoren beste bi gol egin zituen Lagunek (Zubiria eta Davila). Etxarri Aranatz, aldiz, punturik gabe itzuli zen Sanduzelaitik. Talde gaztea zuten San Jorgek, eta Etxarri oso estu hartu zuen. 3 eta 0 aurreratu ziren, ondoren Xabatek 3 eta 1-ekoa ezarri zuen, baina azkenean 5 eta 1 gailendu zen San Jorge.

## FUTBOL ERREGIONALA

1. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Zizur	0-1

SAILKAPENA	
ERREGIONAL MAILAKO 2. MULTZOA	
1 Amaia	3
10 Altsasu	0

HURRENGO JARDUNALDIA	
LARUNBATEAN	
16:00 Amaia - Altsasu (Amaia)	

## Altsasuk Amaia liderra du aurkari

Erregional mailako 2. multzoan asteburuan hasi zen liga. Altsasuk aste bat aurreratu zuen partida, festak zirela. Ongi jokatuko zuten gorritxoek, baina ezin izan zuten Zizur mendean hartu. Bihar puntuak lortzeko aukera dute Amaian.

## Osasuna Magnak Burela taldea hartuko du bihar Iruñean

**ATLETISMOA** Ligako lehen jardunaldian Imanol Arregiren mutilak punturik gabe itzuli ziren Cordobatik

Asteburuan hasi zen Lehen Mailako Areto Futboleko 2019/2020 liga. Osasuna Magna Xotak Andaluzian ekin zion denboraldiari, 2. mailatik igo den Cordoba taldearen etxean. Imanol Arregik esana zuen Cordobaz ez zela fio, eta horrela suertatu zen, mailan debutatzen zuen taldeak 8. minutuan sartutako gola nahikoa izan zuelako 3 puntuei eusteko.

Partidako lehen gol aukerak Osasuna Magnarenak izan ziren, baina segidan, 8. minutuan, Manu Lealek Osasuna Magnako Mario Almagroren atea zulatu zuen eta

1 eta 0 aurreratu zen Cordoba. Behin eta berriz saiatu ziren berdeak, baina Cristian Ramos atezainak bikain zaindu zuen Cordobaren atea, geldialdi bikainak tarteko, eta berdeek ezin izan zuten Cordobako atea zulatu. Imanol Arregik atezain-jokalararen formula erabili zuen eta partida berdintzear egon ziren nafarrak, baina ez zuten lortu.

## Bihar, larunbatean, Burela hartuko dute Anaitasun

Horrela, punturik gabe itzuli zen talde irurtzundarra Cordobatik.



Osasuna Magnak berdinketa eskura izan zuen, baina ez zuen lortu. XOTA

Lehen jardunaldia jokatuta, Barça da liderra (3 puntu) eta Osasuna Magna 13.a da, punturik gabe.

Bihar, larunbatean, ligako 2. jardunaldiko partida jokatuko du Osasuna Magna Xotak etxean. Berdeek Ruben Burela taldea

hartuko dute 20:00etan Anaitasuna Pabilioian hasiko den partidari. Lehen jarduneko ere galdu egin zuen Burelak, eta lehendabiziko puntuak lortzeko dena emango dute biek. Sarrera polita aurreikusten da Anaitasun.

## EMAKUMEEN ERREG.

2. JARDUNALDIKO EMAITZAK	
Altsasu - Baztan	0-2

SAILKAPENA	
EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA	
1 Castejon	6
15 Altsasu	0

## Altsasuk atsedean hartuko du

Altsasuk neskek ostiralean jokatuko zuten Baztanen kontra. Gogotsu aritu ziren, baina Baztanek bi gol sartu zituen eta gorritxoek galdu egin zuten. Asteburu honetan atsedean jarduna du Altsasuk.



Iban Resano, Euskal Herriko 3. Mailako kanporaketan. ARTXIBOA

## Iban Resanok Nafarroako 1. Mailako kanporaketa du jokoan

**AIZKORA** Igandean jokatu da kanporaketa, 17:30ean, Uharteko Iruñeko Toki-Alai pilotalekuan

Igandean Nafarroako 1. Mailako Txapelketako kanporaketa jokatu da Uharteko Iruñeko Toki-Alai pilotalekuan. 9 aizkolari ariko dira: Iker Vicente (Otsagi), Jon Rekondo (Leitza), Joxean Etxeberria (Ziga), Oier Kañamares (Arostegi), Ruben Saralegi (Leitza), Juan Jose Lopez (Lezaun), Eneko Saralegi (Leitza), Iban Resano (Dorrao) eta Asier Pellejero (Areso). Julen Kañamares ere aritzekoa zen, baina ezingo da aritu, lesionatuta baitago.

Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu beharko ditu etzi Uhartean. Lehen bost sailkatuak azaroaren 15ean Donezteben jokatu den Nafarroako 1. Mailako Txapelketako finalerako sailkatuko dira, eta azkeneko bi sailkatuek, printzipioz, maila galduko dute. Eta aipatzekoa da azken aurreko sailkatuak Julen Kañamaresen aurkako jaitziera

kanporaketa eskatzeko aukera izanen duela.

Nafarroako puntako aizkolariak dira igandean lehiatuko direnak; ea dorrobarrak lan ona egiteko aukera duen eta lehendabiziko bosten artean sailkatzen den, finala jokatu ahal izateko.

### Goizeder Beltza, EHko 3. mailako finalera

Igandean Euskal Herriko 3. Mailako Aizkolariaren azken kanporaketa jokatu zen Irurtzunen. 11 aizkolari aritu ziren lanean, tartean Goizeder Beltza etxarriarra eta Iker Gorriti uhartearra, eta lau kanaerdiko erdibitu behar izan zituzten. Lehen bi sailkatuek lortu zuten final handirako sailkatzea: Eneko Saralegik eta Goizeder Beltzak. Ruben Saralegi, Xabier Orbegozo "Arria Va", Luis Polanko, Txomin Amundarain eta Ioritz Gisasola aizkolarietara batera jokatu dute finala.

Rezusta eta Ezkurdia-Mariezkurrena II.a izango dira, eta bigarren multzokoak Bengoetxea VI.a-Martija, Irribarria-Albisu eta Altuna III.a-Imaz. Bikote orekatuak dira eta torneo interesgarri eta ikusgarria espero da.

Victor eta Zabaletak larunbatean jokatu dute, Olaizola II.a-Rezustaren kontra; Bengoetxea VI.a-Martija igandean sartuko dira lehian, Irribarria-Albisuren, eta Ezkurdia-Mariezkurrena II.ak astelehena larunbateko gaitzaileak izanen dituzte arerio.

### PILOTA Logroñoko San Mateotan murgilduko dira sakandarrak

Bihar, larunbatean hasiko da 40. Logroñoko San Mateo FERIA, sanferminen atzetik udako 2. torneo prestigiotsuena dena. Nobedade moduan, bikote guztiak mistoak izanen dira, hau da, Aspe eta Baiko enpresako pilotarietara elkarrekin osatuko dituzte bikoak.

Sei bikote lehiatuko dira, bi multzotan. Lehen multzoko bikoteak Victor-Zabaleta, Olaizola-



Altsasuko 50. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako finalistak, sari emate ekitaldian. UTZITAKOA

# Altsasuko promesetako txapelak, etxean

**PILOTA** Igandean 50. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketako final handiak jokatu ziren. Emakumezkoetan Leire Garaik eta Naroa Agirrek irabazi zuten, jubeniletan De la Fuentek eta Adrian Azpirozek eta promesetan Urtzi Nazabalek eta Aaron Arbizuk

Igande arratsaldean jokatu ziren Sociedad Deportiva Alsasua-Altsasu Kirol Elkarteak eta Pilotajaukuk antolatutako 50. Otadiko Kristo Deuna Pilota Txapelketaren final handiak. Aurten data borobila ospatzen du afiziotuen mailako pilota torneo ezagunak, 50 edizio, eta giro ederrarekin jokatu ziren finalak. 400 pilota zale baino gehiago bildu ziren Burunda pilotalekuan, eta gozatu ederra hartu zuten pilotariak animatzen, tartean sakandarrak baitzeuden.

Emakumezkoetan Irati Igoa etxarriarrak eta Sonia Alonsok sorpresa eman nahi izan zuten Leire Garaik eta Naroa Agirre faboritoen kontura. Partida oso entretenigarria izan zen, bi bikoteak oso paretsu ibili zirelako, baina azkenean Leire Garaik eta Naroa Agirrek azkeneko txanpan tartea ateratzeko aukera izan zuten eta 18 eta 12 irabazi zieten Irati Igoari eta Sonia Alonsori, 29 minutu iraun eta 265 pilotakada izan zituen partidaren. Emakumezkoen txapelak, beraz, ez ziren Sakanan gelditu.

### Irati Igoa: "final gogorra eta polita izan zen gurea"

"Emakumezkoena final gogorra eta polita izan zen, baina azkenean 18 eta 12 galdu genuen" azaldu digu Irati Igoak. Etxarriarrak

urrian barna Gartzarongo Pilota Txapelketan parte hartuko du eta Emakume Master Cup txapelketan aritzeko zalantzan dagoela aipatu digu. "Palako partidak, Mulier futbol taldearekin jarraitzen dut eta astebururo futbol partidak ditut, txikien asteburuko futbol partidak... asteburuak ez dit denerako ematen" aitortu digu.

### Jubeniletan lehia estua

Ondoren jubenilen txanda izan zen. Finalerako sailkatu ziren Beñat Senar eta Altuna aurrelariak ordezkatu behar izan zituen antolakuntzak. Horrela, Jorge Fernandezek eta Ander Garmendiak Aingeru De la Fuente eta Adrian Azpiroz izan zituzten aurkari lehia oso estuan. Partida bikaina izan zen; 70 minutu izan zituen eta pilotariak 586 pilotakada gurutzatu zituzten. Bietako edozein biko izan zitekeen garaile, baina azkenean nafarrak gailendu ziren, Jorge Fernandezi eta Ander Garmendiari 20 eta 22 irabazi baitzieten Aingeru de la Fuentek eta Adrian Azpirozek.

### Promesetan Nazabal eta Arbizu gailendu ziren

Eta azkenik promesen edo helduen finala jokatu zen. Kasu honetan, sakandarren arteko finala izan zen, Irurtzun klubeko bi biko-

artekoa. Iosu Olaetxeak eta Ion Lazkozek osatu zuten bikoteetako bat eta Urtzi Nazabalek eta Aaron Arbizuk bestea. Hasieran bi bikoak paretsu ibili ziren, baina seinako berdinketaren ondoren Nazabal eta Arbizu tantoak pilotatzen hasi ziren eta zuzenean joan ziren 16 eta 6ra. Aipatzekoa da Aaron Arbizu ikusgarri egon zela. Bukaeran, 11 eta 22 irabazita, Urtzi Nazabalek eta Aaron Arbizuk jantzi zituzten txapelak.

Sari ematean Altsasu Kirol Elkarteak eta Pilotajauku talde antolatzaileetako ordezkariak, Altsasuko Javier Olló alkatea eta Nafarroako Pilota Federazioordezkariak egon ziren.

**bai & by**

BAI & BY Hizkuntza Akademiak komertzial lanetarako pertsona behar du, salmentetan esperientziaduna. Euskara derrigorrezkoa.

Interesatuak CV bidali  
montaner.navarra@  
grupmontaner.com  
emailera.



Amaia Gerrikagoitia kirol teknikaria, ezkerrean, iazko Sakanako Bizikleta Eguneko aurkezpenean.

# "Helburua herrietako ikastaroen eskaintza osatzea da"

**KIROLDEGIA** Ikasturte berriko ikastaroak aurki hasiko dira. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak bere eskaintza aurkeztu du, eta ikastaro horietan izena emateko azken egunak dira hauek. Amaia Gerrikagoitia teknikariak eman dizkigu argibideak

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA **Herrietan makina bat kirol ikastaro edo eskola daude. Sakanako Mankomunitatean herri bakoitzaren egunerokotasunetik kanpo ateratzen direnak antolatzen dituzue?**

Bai. Ohikoak ez diren ikastaroak dira gureak, batzuk behar bereziak dituzten pertsonendako, beste batzuk orokorrak direnak, espezifikoa... Udalek euren eskaintza dute eta Mankomunitatearen helburua da eskaintza hori osatzea, Udalek eskaintzen ez duten eta beharrezkoa den kirol hori antolatzea. Egunotan ikastaroen informazioa zabaldu dugu eta lehenbailehen eman behar da izena Sakanako Mankomunitatean.

**Tartean behar bereziak dituzten edo ezgaitasunen bat duten pertsonendako kirol egokitua dago. Ikastaro horietako bat igeriketa eta soinketa egokitua da.**

Ezgaitasun mentala duten pertsonen zuzenduta dago, eta aste-ko egun batean igeriketa egiten dute eta bestean soinketa, Arbizuko kiroldegian. Oinarrizko igeriketa eta soinketa lantzen ditugu. Ariketa fisikoa egitea da helburua, euren artean elkar harremanak sortzea, eurak gustura egoteko eta ongi pasatzeko. **Askok urtero errepikatuko dute, ezta?**

10 pertsona inguruk egin ohi dute, eta gehienek urtetik urtera errepikatzen dute. Tasubinsako langileak tailerreko autobusarekin doaz ikastarora eta

**"BEHAR BEREZIAK DITUZTENENAKO IKASTAROK OSO ONAK ETA BEHARREZKOAK DIRA"**

ondoren taxiz bueltatzen dira etxera. Tailerrean urtero ikasle berriak dituzte, eta hortik ere ikastarora ikasle berriren bat iristen da beti. Iaz 3 urteko ume bat apuntatu zen, Jokin, eta oso esperientzia polita izan zen: umeak eta helduak elkarrekin... Bi monitore izaten ditugu denen beharrak asetzeko, Maalen Beraza izango da bat eta beste bat behar dugu; hemendik, deia egin nahi diet igeriketa monitore direnei, euren curriculum gurrera bidaltzeko.

**Musikoterapia eta psikomotrizitate ikastaroa ere desgaitasunen bat duten pertsonendako antolatzen duzue.**

Bai, ikastaro hau Altsasuko Gaztegunean egiten da, Milakolore taldearen laguntzarekin. Urtetik urtera partaide gehiago ditugu, lehendik daudenek jarraitzen dute eta berriak datoz.

Txikienekin eta beharra dutenekin ordu erdiko bakarkako saioak egiten dira, eta gero talde bat dago, 8-10 pertsona ingurukoa, eta ordu bateko taldeko saioa egiten dute. Iñigo Oloriz da irakaslea, eta ikasleak oso pozik daude. Dantza, abestiak, instrumentuen soinuak... gustura ibiltzen dira, baina bitartean terapia egiten dute. Bakoitzaren garapena ikusteko gurasoekin harremana dago, eta oso jardura garrantzitsua eta beharrezkoa da; 15 partaide inguru dira. **Beste ikastaro bat fibromialgia eta antzeko gaixotasunak dituztenen dago, euren egunerokotasunean dituzten minak arintzen laguntzeko.**

Oso ongi esan duzu, ikastaro honek gaixo horiei mina arintzen dielako. Erlaxazio tekniken bidez eta bakoitzari egokitutako ariketaren bidez – elikadura ere zaintzen dute – min hori arintzen zaie. Bestalde, alde psikologikoa ere lantzen dute. Partaide batekin hitz egin dut gaur eta esan dit oso pozik daudela, giro oso ona dutela klasean eta askoz ere hobeto sentitzen dela ikastaro honetan parte hartzen duenetik. **Fibromialgia, neke kronikoaren sindromea, Sentiberatasun Kliniko Anizkoitza... ikastaroa gomendagarria da euren dago?**

Zalantzarik gabe. Egoera berean dauden pertsonak elkartzea ona da. Psikologo bat ere etortzen da eta banaka lantzen dute arlo hau. Ikastaro osoa da, eta Altsasun, Irurtzunen eta Etxarri Aranatzan eskaintzen da.

**Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolak 8. denboraldia bete du aurten. Zein helbururekin sortu zen?**

Herriar baten proposamenez antolatuta genuen eta hasieratik arrakasta izan zuen. Garapen bat izan du eta bi talde ditugu: hastapena ikastaroa, hasiberriendako, eta hobekuntza ikastaroa, teknikak hobetzeko. Zergatik sortu zen? Sarritan emakumeek beraiendako espazio bat behar dutelako kirola egiteko. Halaber, Dantzalekuko pista eta bere erabilera bulkatu nahi genuen. Bestalde, inkeste-

**"SAKANAKO EMAKUMEENDAKO ATLETISMO ESKOLAK ARRAKASTA IZAN ZUEN HASIERATIK"**

tan jaso dugun balorazioa da ikastaroan lagunak egiten dituztela eta gero elkarrekin gertatzen direla korrika egiteko. Harreman hori behar dute; lagunartean gusturago ateratzen dira korrika egitera, eta, bide batez, teknika bat ikasita.

**Orain emakume gehiago ikusten dira korrika, baina lehen ez hainbeste. Ikastaroarekin korrika egiten hasteko aukera eman zitzaizkien emakumei?**

Askori bai. Urriaren 18an hasiko da ikastaroa, Dantzalekun. Pistaz gain, Dantzalekuko partaide zoragarrietan barna ateratzen dira korrika egitera. 18 urtetik aurrerako emakumeek eman ahal dute izena. Andoni Jaka da monitore berria, orain arte Aitor Mozo izan delako.

**Bestalde, futbol eta saskibaloia monitoreak direnendako edo izan nahi dutenendako formazioa eskaintzen duzue aurten.**

Bi urtetik behin saiatzen gara formazio-ikastaro hau antolatzen. Pentsatzen dugu garrantzitsua dela umeekin lanean dauden monitoreek oinarrizko formakuntza bat izatea, horrela, kalitatezko hezkuntza eta kirola eskaini ahal izango delako. Irakasleak Nafarroako Gobernuako mediku Zentroko irakasleak dira, eta monitoreak trebatzeko ikastaro oso ona da.

**Ikastaroa egiten dutenek "Futboleko / saskibaloian hasteko prestatzaile" izeneko titulua jasoko dute.**

Gaur egun umeekin aritzeko, legez, derrigorrezkoa da formakuntza bat izatea. Norbaitek ikusten badu bide horretatik jo ahal duela, komenigarria da ikastaro hau egitea. Bi zati ditu, bat amankomuna, eta bestea espezifikoa, futbol atalekoa edo saskibaloia atalekoa. Oso ikastaro osoa da, gai asko eta garrantzitsuak lantzen dira. Titulua jasoko dute ikastaroa egiten dutenek, oinarrizko titulua, baina legezko titulua da eta titulu hau edozein taldetan aurkezteko baliagarria da.

**Sakanako Harrijasotze Eskola eta Aizkora Eskola aurki hasiko dira, ezta?**

Sakanako Harrijasotze eskola martxan dago jada, Irurtzunen, Mikel Lasarte monitorea dela, eta Sakanako Aizkora Eskola udaberri aldera hasiko da lanean. Bestalde, ikastetxeetako igeriketa kanpaina martxan dago. Bertan Lehen Hezkuntzako 2. mailakoek hartzen dute parte.



## Mank-eko Kirol Zerbitzuko ikastaroak

### Sakanako

#### Emakumeendako Atletismo Eskola

Urriaren 18tik maiatzaren 22ra arte, ostiraletan, Altsasuko Dantzalekuko pistan. 18 urtetik gorakoendako. Hastapen ikastaroa (17:00etatik 18:00etara) eta hobekuntza ikastaroa (18:00etatik 19:15era). Irakaslea: Andoni Jaka. Prezioa: 50 euro. Izena emateko epea: urriak 5.

#### Monitoreendako oinarritzko futbol / saskibaloiko ikastaroa

Urriaren eta azaroan, Altsasun. 30 ordu. Haurren futbol eta saskibaloiko eskoletan dabilizan edo ibiliko diren 16 urtetik gorakoendako. Bi atal, zati orokorra (18 ordu) eta fuboleko edo saskibaloiko espezifikoa (16 ordu). Prezioa: 50 euro. Izena emateko epea: irailak 27. Lortuko den titulua: "Futboleko / saskibaloian hasteko prestatzailea".

#### Fibromialgia, Neke Kronikoaren Sindromea eta Sentiberatasun Kliniko Anizkoitzaren dutenendako jarduerak fisiko espezifikoa

Urriaren 1etik ekainera. Altsasuko Zelandi kiroldegian (asteartetan eta ostegunetan, 16:00etatik 17:30era), Etxarri Aranazko Osasun Etxean (astelehenera eta asteazkenetan, 16:00etatik 17:30era) eta Irurtzongo Kultur Etxean (asteartetan eta ostegunetan, 10:40tik 12:10era). Izena emateko epea: irailak 27. Prezioa: AFINAKO bazkideek hilean 11 euro eta bazkide ez direnek hilean 17 euro.

#### Kirol egokitua: igeriketa eta soinketa

Urriaren 2tik maiatzaren 13ra, Arbizuko Kiroldegian, astelehenera eta asteazkenetan (17:00etatik 18:00etara). Ezgaitasun mentala duten pertsonen zuzendutakoa. Irakaslea: Maalen Beraza. Prezioa: Doan. Izena ematea zabalik.

#### Musika-terapia eta psikomotrizitatea

Urriaren 5etik ekainaren 20ra arte, Altsasuko Gazte Gunean, larunbatetan, 10:00etatik aurrera. Desgaitasunen bat duten pertsona guztiendako. Prezioa: Milakolore elkarteok doan eta gainontzekoek 50 euro ikasturte osoa. Izena emateko epea: irailaren 27a.

\* OHARRA: Ikastaro hauek guztiak Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta ditu, hainbat entitate, udal eta talderen laguntzarekin. Izena ematea Kirol Zerbitzuan: kirolak@sakana-mank.eus edo 948 464 866).

# Arrieta, Erbiti eta Izagirre Munduko Txapelketara

**TXIRRINDULARITZA** Igandetik aurrera jokatuko dira Munduko Txirrindularitza Txapelketak Yorkshiren, Ingalaterran. Igor Arrieta junior mailako Espainiako selekzioan ariko da eta Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre Espainiako elite mailako selekzioan

Irailaren 22an, igandean hasiko da Munduko Txirrindularitza Txapelketa, Ingalaterrako Yorkshire konterrian, eta irailaren 29an despedituko da. Profesionalak, eliteak, 23 urtez azpikoak eta juniorrak lehiatuko dira bertan. Hiru sakandarrek hartuko dute parte: Igor Arrietak, junior mailako Espainiako selekzioan, eta Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre, elite mailako Espainiako selekzioan.

#### Igor Arrietaren aukera juniorretan

Junior mailako Espainiako selekzioarekin arituko da Mundualetan Igor Arrieta txirrindulari uhartearra. Carlos Rodriguez, Juan Ayuso, Raul Garcia eta Fernando Tercero izango ditu taldekide eta guztiak Francisco Javier Cerezo selekzionatzailearen aginduetara ariko dira. Mundialak prestatzeko afizionatuen mailako Valentziako Vueltan aritu zen junior maila-



Imanol Erbiti eta Gorka Izagirre, Vueltoako azken etapan solasean. MOVISTAR TEAM

## VALVERDEK ATZERA ERE ORTZADARRA DUEN MAILLOTA JANZTEA DA HELBURUA

ko Espainiako selekzioa irailaren hasieran eta lan bikaina egin zuen. Raul Garciak etapa bat irabazi zuen eta bigarrena izan zen sailkapen orokorrean, Simon Carr (AVC Aix en Provence) liderretik 21 segundora.

#### TXIRRINDULARITZA Movistar Team, Vueltoako onena

Primoz Roglicek (Jumbo) jantzi zuen Espainiako Vueltoako irabazlearen maillota, Alejandro Valverderi (Movistar) 2:16 minutu eta Tadej Pogacarri (UAE Emirates) 2:38 atera eta gero. Vueltoako talderik onenaren saria Jose Luis Arrieta uhartearrak zuzentzen duen Movistar Team taldeak jaso zuen, eta Hiriberriko Imanol Erbiti taldekideekin igo zen oholtzara. Bere liderren alde lan itzela egin du Erbitik, eta Vueltan 64.a sailkatu zen. Gorka Izagirrek ere talde lan bikaina egin zuen. 53.a sailkatu zen, baina Migel Angel Lopez bere liderra ez zen podiumerako sailkatu eta Astanak zapora tris-tearekin bukatu zuen Vuelta.



UTZITAKOIA

## Etxeberria lehen nafarra 90. Altsasuko Proban

**TXIRRINDULARITZA** Altsasu Kirol Elkarteak mimo handiz prestatutako 90. Altsasuko Txirrindularitza Proba esprintean erabaki zen eta heldu den urtean Movistar Team-ekin debutatuko duen Lizarte taldeko Iñigo Elozegi izan zen azkarrena. Josu Etxeberria


iturmendiarra (Rural Kutxa) 13.a sailkatu zen, probako lehen nafarra; Laboral Kutxako Ailetz Lasa ziidiarra eta Eneko Aramendia iturmendiarra 14.a eta 18.a. Probak Euskaldun Torneoan erabaki zuen eta Victor Etxeberria (Telcom) izan zen txapeliduna.

Igor Arrieta 61.a sailkatu zen, 18:32ra.

Junior mailako Txirrindularitza Mundualetan, Carlos Rodriguezek eta Fernando Tercerok erlojupekoan hartuko dute parte eta talde osoa, Igor Arrieta barne, lineako lasterketan ariko da. Mundualetan aritzea aukera oso polita izanen da Igor Arrietarendako, esperientzia bikaina.

#### Erbiti eta Izagirre, Valverderen aldeko lana egitera

Elite mailako selekzionatzaile Pascual Momparlerrek aste honetan ezagutzera eman du Mundualetara joango den bederatzikotearen behin betiko zerrenda. Bertan izanen dira Hiriberriko Imanol Erbiti (Movistar Team) eta Ziordian bizi den Gorka Izagirre (Astana), euren lider izango den Alejandro Valverderen alde (Movistar Team) lana egiteko. Iaz Mundiala irabazi zuen Valverdek, eta aurten, 39 urterekin, atzera ere ortzadarra duen maillota jantzi nahi du. Ondoko txirrindulariek osatuko dute taldea: Jose Joaquin Rojasek (Movistar), Marc Solerrek (Movistar), Ion Izagirrek (Astana), Luis Leon Sanchezek (Astana), Jonathan Castroviejok (Ineos) eta Ivan Garcia Cortinak (Bahrain-Merida). Taldea ostiraletik ostegunera bitartean Alacanten kontzentratuta egonen da, orduan Yorkshireko bidea hartu eta hurrengo asteburuan Mundualetan parte hartzeko.



Mendizaleak Aralarko San Migelera igotzen.

## Mendiko Segurtasunaren 2. Nazio Eguna antolatu dute

**MENDIA** Irailaren 27tik 29ra izanen da, Altsasun eta Uhartan. Espainiako Federazioan eman behar da izena

Espainiako Mendi eta Eskalada Federazioak (FEDME) antolatzen duen Mendiko Segurtasunaren 2. Nazio Eguna Sakanan izanen da aurten, Altsasun eta Uhartar Arakilen, irailaren 27tik 29ra. Jardunaldi hauetan mendi taldeetako gidari boluntarioek eta naturan lan egiten duten monitorea eman ahalko dute izena.

### Tailer interesgarriak

Zenbait tailer prestatu dituzte: xendazaletasuna (30 toki. Aralarko Itzulia GR20an); arroi-lajaisiera (12 toki. Artazul, Goñin); eskalada (12 toki. Aiztondon,

Uhartar Arakilen); ipar martxa (30 toki. Uhartar Arakilen); eta mendi lasterketak (10 toki. Beriainen). Modalitate guztietan erreskateak nola egin eta larrialdiak nola kudeatu ikasiko dute, eta Nafarroako Suhiltzaileen Zerbitzuaren Erreskate Taldearekin beste tailer bat egingo da.

Jardunaldietan parte hartzeko izena ematea zabalik dago Espainiako Mendi Federazioaren web gunean ([www.fedme.es](http://www.fedme.es)). Egonaldia Otadiko Kristo Deuna Aterpean izanen da eta Iortia Kultur Gunean zenbat hitzaldi antolatuko dituzte.



ORIO ARRAUNKETA ELKARTEA

## Gonzalezen Orio, txapelduna

**ARRAUNA** Urritzolako Ibai Gonzalez arraunlariaren Orio taldeak Eusko Label Liga irabazi du historian lehen aldiz, Ligako 20 estropadetatik 8 garaipen izan eta gero. Orion harrera beroa egin zieten euren arraunlariei eta ospakizun ederra izan zuten arrano horiek.

# Sakanako Bizikleta Eguna badator, eman izena!

**TXIRRINDULARITZA** Irailaren 29an izanen da Sakanako Bizikleta Eguna, Ziordian hasi eta Uhartar Arakilen despedituta, Ergoienan geldialdia egin eta gero. Mank-eko Kirol Zerbitzuan izena emateko azken eguna astelehena da, irailaren 23 da

Sakanako Mankomunitateak antolatutako Sakanako Bizikleta Egunaren 26. edizioa izango da aurtengoa. Irailaren 29an izanen da, igandearekin, goizeko 9:00etan Ziorditik abiatuta. Lizarragan hamaiketako eta atsedena hartu eta gero, Uhartar Arakilen despedituko da Sakanako bizikleta festa, 39 kilometro eder osatu eta gero.

Mankomunitateak autobusa antolatzen du, goizeko 7:45ean Irurtzundik abiatuko dena, Sakanako Bizikleta Egunean parte hartuko dutenak euren etxeetan hartu eta Ziordiraino eramateko, eta behin eguna bukatuta, euren etxetara bueltatzeko. Parte hartzea dohainik da, baina autobus eta kamioi zerbitzuak behar bezala prestatzeko eta ekimenean parte hartuko dutenen aseguruia ongi lotzeko, parte hartzeko izena eman beharra dago Sakanako Mankomunitatean, irailaren 23a baino lehen ([kirolak@sakanamank.eus](mailto:kirolak@sakanamank.eus), 948 464 866). 10 urtetik



Aurreko urtekoa, Uhartar Arakilen.

gorakoek bakarrik hartu ahalko dute parte, eta adin horretatik beherakoek, aldiz, nagusiez lagunduta. Kirol Zerbitzutik argi utzi dute ibilbide ez lehiakor honetan parte hartzeko izena ematea derrigorrezkoa dela.

### Izema ematera, derrigorrezkoa

Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak arrazoiak eman dizkigu. "Sakanako Bizikleta Egunean parte hartzeko ezinbestekoa da izema ematea, probaren aseguruia kontratatze eta eguneko autobusak eta bizikletak eramateko kamioiak antolatze. Nahiz eta proban sartu-irteera egin, izema eman behar da, aseguruirako. Mankomunitateaz gain, Sakanako ikastetxe guztietan ere eman daiteke izema, bai haurrak eta baita helduek. Astelehena baino lehen eman behar da izema. Sakandarrondako egun berezia da Sakanako Bizikleta Eguna, egutegian markatuta duguna. Jende askok parte hartzen du, 300-500 pertsona, askok errepikatzen dute, jai giroan egiten dugu, lasai-lasai. Aurten Ziordian hasi, Ergoienako hiru herriak pasa eta Uhartar Arakilen bukatuko dugu. Lau urtetik behin igotzen gara Ergoienara eta aurten tokatzen da".

## Arabako Itzulia Burunda klubeko Hugo Aznarrendako


**TXIRRINDULARITZA** Arabako Itzuliko azken etapa Martzel Etxeberriak irabazi zuen, baina Itzulia Aznarrek

Igandean kadeteen Arabako Itzuliko 3. eta azken etapa jokatu zen Dulantzin (59 km). Lasterketan denetatik izan zen, erasoak barne, eta, azkenean, 9 txirrindulariz osatutako taldea iritsi zen lehena helmugara. Esprintean, Martzel Etxeberria (Sakana G.) izan zen azkarrena (1:23:00). Hugo Aznar laugarrena sartu zen, denbora berean. Hortaz, Hugo Aznarrek sailkapen orokorrari eutsi zion eta Burunda klubeko Korteko txirrindularia izan zen Arabako Itzuliko txapeldun handia, bere taldekide Mikel Unci-

llari 4 segundo eta Diego Ruiz de Arkauteri (El Proex) 11 segundo aterata. Martzel Etxeberria 10.a sailkatu zen, 36 segundora.

Gainontzeko txirrindulariei dagokienez, Jon Erdozia (Sakana G.) 12.a izan zen, Jon Chamorro (Q. Albeniz) 17.a, Sergio Lopez (Q. Albeniz) 34.a, Oihan Etxeberria (Q. Albeniz) 35.a, Alex Lopetegui (Sakana G.) 47.a, Ander Villalobos (Q. Albeniz) 48.a eta Unax Trevejo (Q. Albeniz) 52.a.

**Arrieta eta Gil Tafallako Top-Tenean**



Martzel Etxeberria Arabako Itzulian.

Larunbatean junior mailako eta kadeteen 2. urteko lasterketa jokatu zen Tafallan (72 km). Mikel Retegi (Lizarte) gailendu zen. Igor Arrieta uhartearra (Sakana G.) 8.a izan zen eta Jon Gil la-kuntzarra (Lizarte) 9.a.

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

## OSTIRALA 20

**ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ**  
Euskal presoak Euskal Herrira  
kontzentrazioak.  
20:00etan, plazan.

**ALTSASU Altsasukoak aske**  
kontzentrazioa.  
20:00etan, udaletxe parean.

**OLAZTI Hezurbeltzak Jon Maia,**  
Gorka Hermosa eta Jesus Prieto  
Pitti artisten ikuskizun berria.  
22:30ean, kultur etxean.

## LARUNBATA 21

**ALTSASU Anhinojo Folk**  
Extremadurako folk taldearen  
kontzertua. La Encina kultur  
elkartek antolatuta.  
19:30ean, lortia kultur gunean.

**OLAZTI Esto no me lo**  
esperaba Zanguango antzerki  
konpainiaren ikuskizuna.  
20:00etan, kultur etxean.

**ITURMENDI Eztanda irratia**  
20. urteurrena: Mugi panderoa,  
Los Zopilotes Txirriaos, Kate  
zero, Ezetaerre, Al Karajo

eta Tirry and Tery taldeen  
kontzertua.  
18:00etan, plazan.

## IGANDEA 22

**ALTSASU Kodes-Palomares**  
12 km-tako eta 800  
m-tako ibilbide eginen du  
Mendigoizaleak taldeak.  
08:00etan, egoitzan.


**OLAZTI Niko, banpiro txiki bat**  
familiarreko antzezlanaren  
emanaldia.  
17:00etan, kultur etxean.

**ETXARRI ARANATZ Etorkizuna**  
dantza taldea eta Etxarri  
Aranazko Abesbatzaren  
ikuskizuna.  
19:00etan, Zelei Berriyen.

**ALTSASU Euskal presoak Euskal**  
Herrira kontzentrazioa.  
20:00etan, plazan.

## ASTELEHENA 23

**ALTSASU Pentsio duinen alde.**  
Sakanako Pentsiodunen eta  
Adinduen Koordinakundea.  
12:00etan, plazan.



Niko, banpiro txiki bat. UTZITAKOIA

## Kultur asteburua Olatzagutiko kultur etxean

Denboraldia berriari  
indarrarekin ekingo diote,  
eta hiru emanaldi  
proposatu dituzte

**OLAZTI**  
Antzerkia, musika eta magia.  
Haurrendako, gazteendako zein  
helduendako. Gustu guztietarako  
eskaintza prestatu du asteburu-  
rako Olatziko Udaleko Kultur  
zerbitzuak. Gaur, ostirala, da  
lehenengo zita: Jon Maia, Gorka  
Hermosa eta Jesus Prieto Pitti  
artisten *Hezurbeltzak* kontzertu  
"berezia" izanen da, 22:30ean.  
(ikus 23. or).

Mexikoko iraultzan oinarritzen  
den antzezlan izanen da Olatziko  
kultur etxean bihar, larunbata,  
20:00etan. Meta-antzerkia eginen  
du Zanguango teatro konpainiak  
lan honetan, izan ere, Emiliano  
Zapataren bizitza eta heriotza  
kontakten duen antzezlan bateko  
figuranteak dira protagonistak.

Igandean familiarreko antzerki-  
a izanen da, 17:00etan: *Niko,*  
*banpiro txiki bat.* Magia eta umo-  
rea uztartzen dituen ikuskizuna  
da, eta, tartean, Xabier Artieda  
etxarriarrak eta Odei Magoa al-  
tsasuarrek parte hartzen dute.

## Euskarako ikastaro teknikoetarako diru-laguntzak

Udako Euskal  
Unibertsitateak  
udazkeneko ikastaro sorta  
eskaini du

**SAKANA**  
Sakanako Mankomunitateko  
Euskara Zerbitzuak ikasketa  
ofizialak eta arautuak ez diren  
ikastaro, jardunaldi, biltzar, min-  
tegi eta halakoetan parte hartu  
duten sakandarrei diru-laguntza  
emateko oinarriak onartuta ditu.  
Laguntza jasotzeko bi baldintza  
bete behar dira, edozein gairu  
buruz euskaraz egindako saioak  
izatea edo euskararen edota hiz-  
kuntza gutxituen normalizazioa-  
rekin edo soziolinguistikaren  
zerikusia dutenak. Mank-ek 500  
euroko diru poltsa onartu du  
hasiera batean.

**UEU ikastaroak**  
Bestalde, Udako Euskal Uni-  
bertsitateak jakinarazi du  
udazkeneko bere ikastaroak  
prest dituela. 19 dira eta Ei-  
barren, Iruñean eta Gasteizen  
izanen dira. Haietan izena  
emateko aukera zabalik dago  
dagoeneko.

## Udalak bi diru-laguntza deialdi egin ditu

Irabazi asmorik gabeko  
erakundeei eta kooperazio  
proiektuei zuzendutako  
deialdiak dira

**ALTSASU**  
Herrian eragina izanen duten  
integrazioa, aukera berdintasu-  
na, gizarte arriskuko egoeren  
prebentzioa edota gizarte zauga-  
rritasun, babesgabetasun, de-  
pendentzia edo bazterketa egoe-  
ran daudenen alde landuko di-  
tuzten jardunak laguntzeko diru-  
laguntza deialdia onartu du Al-  
tsasuko Udalak. Bestetik,  
nazioarteko kooperazio eta ga-  
rapenerako laguntza proiektue-  
tarako deialdia ere onartu du  
Aurrenak 7.200 euroko poltsa du  
eta irabazi asmorik gabeko el-  
kartek aurkeztu daitezke deial-  
dira. Atzenaren poltsa 6.000 eu-  
rokoa da. Bi deialdietako batean  
interesa dutenek 20 egun baliodun  
dituzte eskaerak udaletxean aur-  
kezteko.

Javier Olló Martínez alkateak  
nabarmendu duenez, bi deial-  
dietara bideratutako dirua han-  
ditu egin du udalak, 2.200 eta  
2.000 eurotan hain zuzen ere.



OLAZTI KULTURA

**OLAZTI Zurrumurrue** atzetik, pertsonak erakusketa. Irailaren 18ra  
arte.  
16:30etik 20:30era, Olatziko liburutegia.







**DEKOVEN  
NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com  
www.dekovenavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - **ALTSASU**  
Tel./Fax: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA



## Ramon Lizarraga Razkin

(1927/11/01 - 2019/09/15)

"Aita bidaia ona izan"

Bere emaztea Felisa eta seme alabak;  
Juan Jose, Maria Elena eta Yolanda

Eskerrik asko etorri zareten guztiei  
baita une latz hau gurekin konpartitu duzuenoi

Lizarragabengoa

ESKELA



## Ramon Lizarraga Razkin

Joan zatzaizkigu lurretik,  
baina ez gogotik, eta ez bihotzetik

Lazkozta iobak

ESKELA



## Josefa Elizondo Jauregui

Urte luze hauetan  
zure ondoan izan dugu zoriona,  
zaindu gaituzu eta  
ez dugu baizik esker ona.  
Zure agurrak utzi du  
guregan hutsune sakona  
hemendik jaso ezazu  
muxu handi eta goxoa,  
beti egonen zara  
gure bihotzetan amona.

Zure familia

## JAIOTZAK

- **Nur Igoa Fernandez**, irailaren 9an Bakaikun
- **Enara Pazos Menta**, irailaren 14an Lakuntzan
- **Unax Lopetegi Luis**, irailaren 16an Lakuntzan

## EZKONTZAK

- **Barbara Perez Diez Canseco eta Eneko Aristu Arbizu**, irailaren 7an Iturmendin

## HERIOTZAK

- **Timoteo Beraza Goldarazena**, irailaren 15ean Irañetan
- **Juan Rodriguez Juanez**, irailaren 17an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA/NEGOZIOAK

## LAN ESKAINTZA

**Irurtzango gazte txo-koan hezkuntza eta aisialdi jarduerak egiteko aldi baterako bi lanpostu betetzeko deialdia da, lan poltsa betetzeko ere.** Izen ematea irailaren 25aren 14:00ak baino lehen udaletxean. Probak irailaren 27an izanen dira, Irurtzango udaletxean bertan, goizeko 10:00etan.

## IKASTAROKA

**Altsasuko udalaren eskaintza:** antzerki tailerra, sare sozialen erabilera, euskarazko literatur hizketaldiak, kafe konpundu, lenteria, eho-ziriak eta joskintza. Izen ematea hilaren 23ra arte egin diateke 012 telefonora hots eginez. Ordainpeko ikastaroen altsasuarek hobariak izan ditzakete matrikulan. Horretarako ikastaro antolatzen duen zerbitzuan joan den urteko errenta aitortpena aurkeztu beharko du.

**Irurtzango udalaren eskaintza:** Antzerki tailerra, irakurketa taldea, marrazketa eta pintura, mantentze-gimnasia, hipopresiboak, pilatesa, zumba, bizkortze-gap, kirol entrenamendua, gorputz jarreraren birkokatzeta eta spinning. Izen ematea hilaren 23ra arte egin diateke. Matrikularen dirua udalaren kontu korronteetako batean sartu behar da eta ordainketa ziurtagiria eta inskripzio orria udaletxean edo kultur etxean aurkeztu behar dira.

**Arakilgo Udalaren eskaintza:** Yoga (goiz eta arratsalde), soinketa lasaia, eskulanak, sukaldaritza topaketak, aste-lehen zoriotsuak, irrite-

rapia eta argazkilaritza hastapenak. Izen lastailaren 2ra arte eman daiten udaletxean edo 948 500 101 edo 634 584 226 telefonotan.

**Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak 12 eta 30 urte arteko gazteei zuzendutako bost ikastaro antolatu ditu udazkenerako:** argazkigintza hastapena, lehen sorospenak, mikrobio lagungarriak, emozioen kudeaketa eta aisialdiko begiralea. Izen emateko epea 26an despedituko da; 012 telefonora hots egin edo Inxotiapunta gazte gune-tik pasa daiten.

**Etzarri Aranazko Udalaren ikastaro eskaintza:** soinketa lasaia, aerobic, spinning, yoga, gimnasio irekia, zirkotailerra (haurrendako), pintura, estimulazio kognitiboa eta berrerabiltzearen artea. Izen ematea irailaren 27ra arte, [www.etzarriaranatz.eus](http://www.etzarriaranatz.eus) bidez, udal bulegoan (10:00etatik 14:00etara), 948 460 004 telefonora hots eginez edo zerbitzuak@etzarriaranatz.eus e-posta bidez. Onartuen zerrenda lastailaren 3an argitaratuko da.

## LEHIAKETAK

**WikiLovesMonuments:** Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak nazioarteko lehiaketa antolatu du. Helburua, ondare izendatutako eraikinen argazkiak egitea da, herriz herri dugun ondarea ezagutarazteko helburuarekin. Hainbat herrietako ondarea bildu nahi dute eta, besteak beste, Altsasu, Arbizu eta Uharteko Arakilgo kultur ondareetako argazkiak aurkeztu daitezke irailaren 30era arte. Informazio guztia <https://eu.wikipedia.org/>

wiki/Atari:Ondarea/WikiLovesMonuments\_2019 helbidean.

**Egile berrientzako Iruñeko Udaleren XXIX. Euskarazko Literatur lehiaketa:** parte hartu ahalko dute nafar egileek edo nafarrak izan gabe, helbidea Nafarroan dutenek. Poesia, Narrazioa eta Bertso-paparak modalitateak. Lan bana modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea 2019ko azaroaren 5ean amaizten da. Informazio gehiago [www.iruñakultura.eus](http://www.iruñakultura.eus) helbidean.

## OHARRAK

**Odol-ematek Etzarri Aranatz:** irailaren 25ean, 17:00etatik 20:30ra. Info gehiago: [www.adona.es](http://www.adona.es).

**Etzarri Aranazko Guaixe Bazkideei oharra:** Aste honetatik aurrera Guaixeren banaketa ostiralgoizetan egingo da aldatzekak jakinarazi ezean. Edozein zalantza argitzeko [admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus) helbidean edo 618 882 675 ffonoan.

**AHT-ko lanetara mendi martxa:** Mugitu! Mugimenduak azaroaren 9 eta 10ean Marcilla eta Tafalla artean AHTaren aurkako mendi martxa bat antolatu du. Helburua tarte horretako AHTaren proiektua ezagutzea eta abiatu dituzten lanak bertatik bertara ikustea da. Bestalde, zonaldeko oposizioarekiko harremanak estutzea eta martxa zeharkatuko dituen herrietan informazioa zabaltea da. Argibide gehiago: <http://mugitu.blogspot.com/>

[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

## IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarki bakarrak iragarriko ditugu.
- GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitzekeen gorabeheren erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarki Guaixe paperean eta [guaixe.eus](http://guaixe.eus)-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.



## IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk  
zeinetan norbait  
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ  
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)

# IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

## "Betidanik"

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es



2018ko antzerki tailerraren parte hartzaileak entsegu batean. ARTXIBOA

## Antzezlan bat sortu, eta beste hainbat gauza gehiago

Altsasuko lortziako antzerki tailerrean izena emateko epea zabalik dago astelehenera, irailaren 23ra, arte

### ALTSASU

Antzerkia egitearen onurak asko dira. Antzezlan bat taularatzea gutxienezkoa da, hoberena bidean ikasten den guztia da. Altsasun urteak daramatzate Iortziako antzerki tailerra antolatzen, eta urtero "talde polit" bat ateratzen dute. Baina geroz eta jende gehiago "hobe" dela esan du Birjiñe Albira tailerreko zuzendariak. Antzerki tailerra urrian hasiko da eta datorren martxora arte iraungo du. Orduan, parte hartzaileek antzezlan bat taularatuko dute. Berezitasuna da tailerrean bertan sortzen dutela antzezlan, bakoitzaren sortze prozesuaren eta lanaren bitartez.

Antzerki tailerra Altsasun egonkortuta dagoen jardueraren bat da. Bertatik hamaika altsasuar pasatu dira, eta badira esperientzia errepikatzen dutenak ere. "Zortzi pertsonako talde bat osatu dugu, errepikatzen dutenak". Badira probatzeraz joaten direnak eta gelditzen direnak, eta itzultzen ez direnak ere. Probatzeko deia egiten du Albirak: "Lehenengo gauza da gustura egotea eta talde bat izatea. Talde baten zati zarenean hor egon behar zara, eta zaila da joatea". Antzerkiak "emozionalki" harrapatzen zaituela esan du zuzendariak.

Adinari dagokionez "heldutasuna" eskatzen da, beraz, hamasei urtetik gorakoendako tailerra da. Baina, bestela, "adin tarte guztiak" dira ongietorriak. "Oso aberasgarria da adin desberdineko jendea egotea. Haien artean asko ikasten dute, eta ez bakarrik

gazteek helduengatik, helduek gazteengatik izugarri ikasten dute ere". Izan ere, lan bat sortzean iritzi desberdinak "ona" dela dio.

Albirak azaldu duenez tailer guztietan ez da bukaeran antzezlan bat taularatzeko, baina Iortziako antzerki tailerrean hori da helburua. "Horrek balditzatzen gaitu". Beraz, hasieratik pertsonaiak sortzeko, elkar eragiteko eta istorioa sortzen joateko teknikak erabiltzen dituzendariak. "Teknikak ez dituz izendatzen. Jokoen bidez eta ongi pasatzen sortzen dugu".

### Autoestimua

Antzerkia ez da psikologia, baina antzerkiak onura asko ditu: "oso askatzailea da. Buruan daukazuna eta emozioak transmititzeko bide ona da". Izan ere, antzerkia egiteko "zure burua ezagutu" behar duzu. Ondorioz, "zure burua babesten" ikasten da: "Autoestimua lantzen da modu izugarri batean, izan ere, mundu guztia zuri begira dago, zuk sortu duzun zerbait defendatu behar duzu, eta zati garrantzitsu bat zara".

Lotsa kentzeko "primerako" jardueraren bat antzerkia ere. "Jokoen bidez hasten gara, pixkanaka, lotsak gaintetik kentzen". Konturatu gabe "nahi dugun" tokira iristen direla aitortu du Albirak. Taularen gaineko lotsak kendu ez ezik, egunerokotasunean baliagarriak diren aspektuak ere lor daitezke antzerkiarekin, besteak beste, "lotsaren aurretiko jarrera hartzen".

# Izango al da Etxarrikoa abesbatzarik hoberena?

Etxarri Aranazko Abesbatzak ETB1eko 'Ahotsak' saioan parte hartu du. Irailaren 26an, ostegunean, 22:05ean, Etxarrikoa agertzen den saioa emitituko dute. Esperientzia "oso aberasgarria" izan da. Larunbatean herrian kontzertua egingen du

### ETXARRI ARANATZ

Euskal Herriko abesbatzarik onena aurkitzea da ETB1eko *Ahotsak* saioaren helburua. Programan "Euskal Herriko abesbatzek eta euren herriek protagonismoa" dute, Mikel Jauregi Etxarri Aranazko Abesbatzako kideak azaldu bezala. Etxarri Aranazko Abesbatzak programan parte hartu du eta datorren ostegunean, irailaren 26an, 22:05ean, mustuko dira telebista publikoan.

*Ahotsak*-en astero hiru abesbatzek parte hartzen dute. Bakoitzak hiru abesti defendatu behar dituzte. Bi abesti bideoklip bidez erakusten dituzte, eta hirugarrena herri batean egiten den galan. Hiruetatik bat finalista izango da. Aurkezlea Julian Iantzi da eta musika aditua Hibi Etxebarria musikaria da. Lehenengo abestiaren ondoren erronkak eta aholkuak ematen ditu Etxebarriak, abesbatzaren maila hobetze aldera. "Nahiko gogorra izan da hasieratik, eta askotan desadostasunean egon gara bere iritziekin".

Etxarri Aranazko Abesbatzak Euskal Telebistaren deia jaso zuen saio berri honetan parte hartzeko. "ETBk egindako proposamena erakusleho paregabea izango zela iruditu zitzaigun abesbatzaren izena Euskal Herriaren zehar eramateko". Saioan parte hartzearen alde eta kontrak ikusi ondoren, proiektu honetan "murgiltzera" animatu ziren.

"Gure helburua hasieratik lan txukuna eta maila on bat erakustea zen". Etxarri Aranazko Abesbatzak lan "dezente" egin du *Ahotsak* saioan parte hartzeko, izan ere, telebista saio bat izanda "ahotsek eta irudiek garrantzi handia hartzen dute". Ohiko prestaketa edo entseguak "birbideratu" dituzte: "Alicia Armandariz gure zuzendariak lan gogorra egin du". Proiektu berri honenkin "falta zitzaigun telebista esperientzia" bizi dute ere.



Etxarri Aranazko Abesbatza 'Ahotsak' saiorako grabatzen. UTZITAKOIA

## "AHOTSAK' GALAKO MOMENTURIK GARRANTZITSUENA HIRUGARREN KANTA TAULARATZEA DA"

Telebista saio bat da, lehia bat, eta *talent show* guztietan gertatzen den bezala, "estrategia pittin batekin jokatzeko ongi dago". Osteguneko saioan "lehia oso irekia" ikusiko da. "Botoak emateko garaian hausnarketa sakona egitea behartzen zuen". Beste abesbatzak puntuatzeko garaia "momenturik desatseginena" izan dela azaldu du Jauregik. "Ez gara inoren epaile sentitzen". Izan ere, parte hartzen duten abesbatzak dira boto emaleak. Azken botoak, aldiz, musika adituak ematen ditu.

Koruko kide guztiendako kamara baten aurrean jartzen zen lehenengo aldia zen. "Urduritasun puntu bat denok geneukan". Grabaketak arin joan zitzaizuten zentratuak egotean "behartzen" zituztela azaldu du Jauregik. "Egun haietan egindako esfortzuak merezi izan zuen". Etxarri

Aranazko "bazter ederretan" bi bideoklip grabatu dituzte, eta "goxotasun" osoz editatu dituztela azaldu du.

Balkanetan *Ederlezi* gutxienezkoak diren ijitoen kanta herrikoi bat izango da Etxarri Aranazko Abesbatzaren aurkezpen gutuna. Ondoren, Lizarrako plazan grabatu zuten gala. Bertan hiru abesbatzek sortutako bideoklipak ikusten dituzte, musika adituen iritzia entzuten dute eta botoak ematen dituzte. "Galako momenturik garrantzitsuena hirugarren kanta zuzenean taularatzea da".

Esperientzia "oso aberasgarria" izan da *Ahotsak* saioan parte hartzea. "Hibi bezala aditu bategatik jasotako gomendioengatik eta beste abesbatzek egindako lana gertutik ikusteagatik ez ezik, telebistako saio bat nola prestatzen den barrutik ikusteko aukera bizitzeagatik".

### Denboraldi hasiera

Ikasturte berriari bihar, larunbata, ekingo dio Etxarri Aranazko Abesbatzak Etorkizuna dantza taldearekin batera egingen duen kontzertuan. Zele Berriyaren izena da, 19:00etan.



Anhinojo Folk taldeko kideak. UTZITAKOA

## XXI. mendeko juglareek Altsasun geldialdia eginen dute

Anhinojo Folk Extremadurako taldeak kontzertua eginen du bihar, larunbata, 19:30ean, Iortia kultur gunean

### ALTSASU

Izan bazen garai bat non etxeetan ez zen telebistarik, ez orde-nagailurik, ezta irratirik ere. "Garai horretan familiak eta lagunak sukaldian bildu ohi ziren animoak bazituzten, abesten zuten". Gertakarien berri izateko modu bat zen. Noizbehinka ere herrietan beste lekuetan gertatzen zenari buruz albisteak zabaltzen zituen jendea agertzen zen: juglareak eta erromantze-kantariak ziren. Garai horretan kantatzen eta kontatzen ziren pieza asko galdu dira, izan ere, belaunaldiz belaunaldi ahoz aho transmititu dira.

Extremaduran bada pertsona bat duela 40 urte baino gehiago herri kantak biltzen hasi zena. Grabatzeko zintekin Extremadura iparraldetik hegoaldera eta ekialdetik mendebaldera zeharkatu du adineko jendeari gogoratzen dituen kantak abesteko eskatuz. "Ez dakit zenbat zinta izango ditudan". Jose Mari Diaz da, Anhinojo Folk taldeko kidea, eta bihar, larunbata, 19:30ean, kontzertua eskainiko dute Altsasuko Iortia kultur gunean. Extremadurako kultur astearen baitan etorriko da "luxuzko" taldea Altsasura, La Encina kultur elkarteak gonbidatuta.

"Abesti berdina etxe berdinean beste modu batera abesten dute". Oroitzapenetan oinarritutako abestiak interpretatzen ditu Anhinojo Folk taldeak. Hala ere, behin abestia jasotzen duenean, ikertzen dute eta moldatzen dute. "Ondorioz, guk abestia zen mo-

duan uste dugun bezala interpretatzen dugu". Kantutegia prestatu nahi du, abesti gehiago ez galtzeko asmoz.

Mota guztietako abestiak dauka Anhinojoren Folk taldearen erreperatorioan, eta lekuaren eta denboraren arabera emanaldia moldatzen dute. "Altsasun ordu bat egongo garenez, gutxi gora behera mota bakoitzetik abesti bat egingo dugu". Izan ere, Diazek azaldu duenez, Extremaduran ohikoa zen edozer gertatzen zenean abesti bat egitea, eta, ondorioz, "antzeko" abesti asko gordetzen ditu. Taldea sei pertsonen osatzen dute, eta urteekin aldatuz joan da.

### Gertakariak

"Nor bait haserretzen zela, ezkontza bat zegoela, txerri-hilketa ospatzen ari zirela... denetarako kantatzen zen lehen". Ogibideen kantak, erromantzeak, txerri-hilketa abestiak, ezkontzakoak, errondakoak... Anhinojo Folk taldean mota guztietako abestiak daude, eta guztiak instrumentu "tradizionalekin" jotzen dituzten, hau da, "sukaldeko tresnekin": "etxean zutena erabiltzen zuten". Gainera, "mozkor mailaren" arabera gehiago edo gutxiago abesten zela azaldu du.

Abesti batzuk ezin izan ditugu grabatu gaia zela eta ez egiteko eskatu diotelako, "eta oso zaila da gogoratzea". Publikoan ez abesteko eskatzen dutenak ere badira. Aldiz, "emakume batek XVIII. mendeko erromantze bat eman zidan.



BAZTERRETIK

ZIORDIKO LIBURUTEGIA

## Liburutegia ezagutzen ez dutenei eskutitza

Uda pasatzen ari da eta eguraldi aldaketarekin gure eguneroko ohiturak ere aldatu egiten ditugu. Hotza, euria, hori izango da berehala gure herrietara iritsiko dena eta horri aurre egiteko beti ditugu hamaika aukera.

Herri txikietan ez omen dago ezer. Hori da beti marmarrean gure inguruan entzuten duguna. Hirietan berriz, han bai, noski!, han denetarik OMEN dago. Horrela al da?

Sakana, herri txikiz osaturik dago eta jendeari jakinarazi behar diogu badagoela zer egina, alegia, aukera bikainak ditugula gure denbora asetzeko. Hori etako bat gure liburutegiak dira. Sakanan, nik dakidala, zortzi liburutegi daude. Liburuak, filmak, aldizkariak, musika, erakusketak, hitzaldiak, eta abar luze bat DOHAINIK.



Bertan goxo-goxo egoteko gune zoragarria eta erlaxatzeko leku ezin hobea. Ikasteko, marrazteko, musika entzuteko... horixe da liburutegi bat. Edozertarako erantzuna ematen dizun ESPAZIO LIBREA. Oporretan bidaia liburuak, mendira joateko gida liburuak, irakurtzen ikasten hasteko haurrendako liburuak, hizkuntzak ikasteko liburuak,

baratzean aritzeko liburuak, sukaldatzeko liburuak...

Hori guztia azalduta, liburutegira gerturatuko zareten guztioi Ziordiko liburutegitik gomendio batzuk egin nahi dizkizuet. Sekula ez baduzu irakurri, ez kezkatu, etor zaitez, izan ere beti aurkituko baituzu irakurtzeko oso erraza izan daitekeen Jon Arretxeren edozein liburu edo Alberto Ladron Aranaren beste hainbeste. Euskara erraza eta gainera, aise irakurtzeko istorioak. Gaztelaniaz, berriz, esate baterako, nobela beltzak oso sinpleak izanzen dira, ala biografiak. Beraz, inoiz ez bazara hurbildu zure herriko liburutegira, oraingoan ez daukazu aitzakiarik. Liburuzaina beti egongo da laguntzeko eta edozein gomendio emateko prest.

## Jam session festetan

Festetan musikak eta dantzak tarte handia hartzen dute, eta aurtengo Altsasuko festetan presentzia handia izan du Reincidentes talde mitikoarekin. Baina talde andaluziarra ez ezik, Altsasuko musikariek ere bere tarteia izan zuten, modu inprobisatuan izan bazen ere: Jam session edo inprobisatutako saioa egin zuten Arkangoa kalean, astelehenean.



## 'Oholtzara salto' programa Sakanara itzuliko da

Irurtzunen antzerki tailerra eginen da Nafarroako Gobernuaren kultur programari esker

### IRURTZUN

Arte eszenikoak gazteei hurbildu eta haiek antzezlanetako protagonista bihurtzea da 'Oholtzara salto' programaren helburua. Gainera, Nafarroako Gobernutik azaldu dutenez "sortzaile eta

ikusleak sortzera bideratuta dago ekimena". Izan ere, "antzerkia oso tresna egokia da hazkunde pertsonala, kultur aberastasuna eta kontzientzia soziala sustatzeko". Iaz egin zuten lehenengo edizioa eta ehunka gazteek par-

te hartu zuten, tartean Sakandarrak. Aurten bailarara itzuliko da, eta, besteak beste, antzerki tailerra egingo da Atakondoa ikastetxean 12 eta 16 urte bitartekoendako bideratuta.

'Oholtzara salto' antzerki tailerren parte hartu nahi duenak izena eman behar du asteazkena baino lehen. Jarduera doan da, baina konpromisoa izan behar da. Klaseak asteartean, euskaraz, eta ostegunetan, gaztelaniaz, izango dira 16:00etatik 18:00etara. Tailerra urritik otsailera egingo da.



Gorka Hermosa, Jon Maia eta Jesus Prieto 'Pitti' artistak Hezurbeltzak taldean bildu dira. UTZITAKOA

# "Jendearen arteko zubia eraikitzea beharrezkoa da"

**JON MAIA** BERTSOLARI ETA ABESLARIA

Musika talde berezia da Hezurbeltzak taldea. Jon Maia bertsolariak kantuen letrak idatzi ditu, zenbait melodia konposatu ditu eta taldeko abeslaria da

**Erkuden Ruiz Barroso** OLAZTI

Maketoak, belarrimotzak, hezurbeltzak eta abar izan ziren estatuko herrialdeetatik Euskal Herrira etorritakoei jartzen zitzaizkien hainbat izen. Jon Maia duela urte batzuk hasi zen gai honi buruz hitz egiten eta Hezurbeltzak proiektuarekin, musikaren bidez, "zubia" eraikitzen jarraitu nahi du goi mailako musikariek: Gorka Hermosa akordeoilaria eta Jesus Prieto *Pitti* gitarra jolea. Gaur, ostirala, 22:30ean, Olaztiko kultur etxean egongo dira.

**Zer da Hezurbeltzak?**

Musika talde bat gara: bi musikari eta ni. Kontzertu bat da, baina baditu bere berezitasunak. Kantatzeaz gain poemaren bat ere badago, jendearen artean bat-batean kantatzen dut eta giro

**"ESTEREOTIPO, AURREIRITZI ETA KLIXE HORIEK PUSKATZEA GUSTATZEN ZAIGU"**

berezia sortzen saiatzen gara. Kontakizun bat ere egiten da.

**Nondik dator Hezurbeltzak izena?**

*ELE!* Lorca *Lauaxeta* izeneko antzezlan batean elkar ezagutu genuen musikariak eta hirurok. Euskal Herrian egon den bi kulturen arteko elkarbizitza gatazkatsua lantzen da antzezlanean: estatuko beste herrialdeetatik Francoren garaian industrian lan egitera eta bizi berri bat hastera iritsi ziren etorkinak eta bertakoak kultur zapaldu eta zigortu bat, hizkuntza debekatu

bat eta abar zutenak. Elkarbizitza zaila izan da. Gorka Hermosa eta biok Urretxun jaio ginen eta biak Extremadurako etorkinen semeak gara. Gure familia bezalakoei esateko hainbat hitz erabili izan dira: belarrimotzak, koreanoak, maketoak... eta tartean Hezurbeltzak ere bai. Denetan politena iruditu zitzaigun. Gaia umorez tratatzen dugu, baita serio ere.

**Beraz, gaia gatazka hori da?**

Taldearen abiapuntua da. Denbora askoan Euskal Herrian tabu izan den gai bat da, eta tratatzeko delikatua. Tartean gatazka politikoa egonik, ez da erraza izan inmigratio fenomeno horri heltzea eta behar bezala hitz egitea. Orduan, gu saiatzen gara kantuen eta istoriotxo bidez beste ikuspegi batzuk ematen. Gure familiak handik etorri ziren, baina bai Gorka eta bai ni euskaldunak gara eta euskaraz horri buruz kantatzen dugu. Herri honen kulturaren parte gara. Garai hartako jendeari buruz hitz egitea eta sortu diren estereotipo, aurreiritzi eta klixe horiek puskatzea gustatzen zaigu. Abestien bidez ekarpen bat egin nahi dugu.

**Euskal kulturaren gutxi landu den gaia da?**

Bai. Gauza solteak daude. Duela urte batzuk hasi nintzen diskurtso horrekin bertsoetan eta *Rio-mundo* izeneko nobela bat idatzi nuen nire familiaren historia kontatuz, euskaraz. Karidadeko Benta musika taldean bagenituen honi buruzko kantak eta Pirritx eta Porrotzekin Abuela Mari-luisa kantua egin nuen. Bide berri bat zabaltzen saiatu naiz.

**Horri buruz hitz egiteko beharra sentitu zenuen? Zorretan zeunden?**

Hasieran ez nuen batere ondo eramatzen nire familiaren jatorria eta identitate hori. Nahiz eta beti izan garen familia abertzale bat eta nire gurasoak ere militanteak izan diren, giro horretan ez zegoen oso ondo ikusia eta ezkutatu egiten nuen nire jatorria. Halako batean konturatu nintzen ez nintzela lotsatu behar. Alderantziz, ongi ikusi behar nuen, eta nire familiak egindako ahalegina ba-

**"EZ DA ERRAZA IZAN INMIGRAZIO FENOMENO HORRI HELTZEA ETA BEHAR BEZALA HITZ EGITEA"**

loratu behar nuen. Lur berri batean langile familia bat bizitza berri batek hasi eta seme-alabak eta lehengusu guztiak euskaldunak izatea. Ez da lotsatzekoa, baizik eta beraietaz harro egoteko modukoa. Hori adierazteko beharra sentitu nuen. Denbora daramat honekin. Pentsatzen dut oraindik lana egin behar dela.

**Sakanan gai ezaguna da. Nola izan-go da hemen Hezurbeltzak egitea?**

Berezia. Gure emanaldietara etortzen den jendeak gure diskurtsoa ezagutzen du. Ikusten dute haien esperientziari buruz ez dela ezer egin, gainera, empatiarekin eta gauzak bere tokian jartzen saiatzen gara. Hunkigarria izaten da. Ilusioa egiten dit hara joatea badakidalako egoera honetan jende asko dagoela. Uste dut zubi hori eraikitzea beharrezkoa dela. Euskal Herrian egiteko dauden gai asko ditugu, nahiko gatazkatuak direnak, eta elkarrengan hurbiltzen konpondu behar ditugu. Zuhaitza pixka bat astindu behar da fruituak erortzeko.

**Zer nolako musika egiten duzue?**

Maila handiko taldea da. Goi mailako bi musikari dira eta kontzertuetara etortzen den jendea harrিতuta aterako da hor entzungo duenarekin. Jendea harritzen da bi musikari hauek entzunda. Gorka Hermosa munduko akordeoilari hoberenetarikoa dago kontsideratuta eta bere piezak kontinente guztietan jotzen dira. Pitti esperientzia handiko gitarrista da. Gitarra espainolarekin entzun daitekeen gitarrista hoberenetarikoa. Kantuetan denetarik dago. Oso atseginak dira.

**Eta nola da haiekin lan egitea?**

Oso erraza teknika izugarria duten musikariak direlako. Esperientzia handia dute eta bataila guztietara ohituta daude. Bertsolari batentzat ona da. Guk bakarrik kantatzen dugu, modu anarkikoan. Musikariek ez dakite nondik joko dugun, eta horregatik gozamina da bi musikari hauekin aritzea. Lasaitasun handia ematen dute.

**Ez da lehenengo aldian musikaren munduan zabiltzana, baina nola izan da salto hori?**

Urte batzuetan ezin izan dut proiektu musikal bat abian jarri eta pila bat disfrutatzen ari naiz. Berriz ere gogoratzen ari naiz Karidadeko Bentarekin ze ondo pasatzen nuen. Beste aukera batzuk ematen dizu. Show gehiago dago.

# "Gure erritmora ikasten dugu, hori da hoberena"

Miren Bajo, Nuria Rojo eta Igor Lantz euskara ikasten ari dira AEK-ko Itsasi euskaltegian, Irurtzunen. "Lotsa" alde batera utzi dute eta euskaraz hitz egitera ere ausartzen dira. Pausoz pauso haien helburua lortzen ari direla diote

**Erkuden Ruiz Barroso** IRURTZUN

## 1 Zergatik euskara ikasi?

**Igor.** Arrazoi asko daude. Nire ingurua euskalduna zen, eta ni ez. Beraz, hemengo jendearekin hitz egiteko. Pixkanaka bagoaz aurrera.

**Nuria.** Nik betidanik euskara ikasi nahi izan dut. Nire amonaren hizkuntza euskara zen, eta ezkondu zenean Irurtzunera etorri zen eta ezin izan zuen erabili. Orduan, nire ama eta osaba-izebek ez dakite. Haiekiko zor bat zen. Gure arbasoekiko zorra. Horregatik hasi nintzen duela urte asko. Momentu honetan garai egokiena zen.

**Miren.** Ni Gasteizkoa naiz eta eskolan euskara ikasi nuen, baina ezin nuen hitz egin. Nafarroara etorri nintzenean hasi nintzen euskaltegian, baina bakarrik gramatika egiten genuen. Ez genuen hitz egiten. Pixka bat frustragarria izan da gramatika jakin eta gero hitz egitera ez ausartu.

## 2 Noiz hasi zineten?

**N.** Duela bost bat urte. Poliki. **I.** Duela sei urte hasi nintzen. Astero biltzen ginen eta ordu bat euskaraz eta ordu bat ingelesez



Miren Bajo, Nuria Rojo eta Igor Lantz Irurtzungo AEK-ko ikasleak.

egiten genuen. Horrela egon ginen hiru urtez. Gero klasera etortzen hasi nintzen eta haunire laugarren ikasturte osoa izango da.

**M.** Gasteizko eskolan ikasi nuen, baina ez asko. Uharteko euskaltegian egon nintzen urte batez,

eta utzi nuen. Hemen duela hiru urte hasi nintzen.

## 3 Nolakoak izaten dira klaseak?

**N.** Gure klaseak bereziak dira. Maila desberdinetako ikasleak daude. Orduan, hitz egitea

nahiago dugu. Gramatika pixka bat ere egin behar dugu.

**M.** Gure asmoa gehiago hitz egitea da. Gramatika egin behar dugu, baina gramatika egiten baduzu, eta gero ez baduzu praktikatzen, ahaztu egiten zaizu.

## 4 Zein mailatan zaudete?

**N.** Pasa den urtean Igorrek eta Idoiak B1 titulua lortu zuten. Duela bi urte Mirenek, Cristinak, nik eta beste zenbait ikaslek. Emiliok maila altua du.

**I.** Bakoitza gure erritmoan goaz. Hizkuntzak bizitza osoko lasterketa bat dira, eta beti aldapan gora ibiltzen gara poliki-poliki ibiltzen eta atsedanak ere hartzen ditugu.

## 5 Azterketetara aurkezten zarete?

**M.** Bai. Batzuek lanagatik B1 titulua lortu behar zuten. Nik ez nuen azterketa egin nahi, baina azkenean guztiak joaten zirenez... Esperientzia gogorra, baina polita. Gainera, lortu genuenez, hor daukazu. Momentuz nik ez daukat B2 egiteko asmorik.

## 6 Harro egoteko modukoa da.

**I.** Lortzen baduzu, bai. Bestela hurrengora arte...

## 7 Zenbat pertsona zaudete klasean?

**I.** Guztira hamar bat gara.

## 8 Hasi zinetenean zer espero zenuten?

**I.** Euskara bat-batean ikastea. Klasean sartu eta listo, euskara jakin. Baina bizitza ez da horrela. Hizkuntzak betirako plana dira. Helburua horizonte batean bezala dago, iristen zara eta zer ikusten duzu? Beste bat. Inoiz ez zara helmugara iristen.

**M.** Hasieran iruditzen zitzaidan gauza asko ikasten ari nintzela, baina iritsi zen momentu bat trabatuta bezala gelditu nintzela. Lagundu zidan Barnetegi batera joateak.

**N.** Aurreratzea espero nuen. Harresia apurtu eta gehiago hitz egin behar dut; lotsa kendu.

## 9 Klasetatik kanpo euskaraz hitz egiten duzue?

**M.** Haurrekin bai. Basaburuako eskolan egon dira eta han denak euskaldunak dira. Irurtzunen ere euskaraz egiten dut. Lagunak euskaldun zaharrak dira eta euskaraz hitz egiten hasten naiz. Baina gaztelaniara pasatzen naiz.

**N.** Nik askoz gutxiago: etxean ez, lagunekin ez... Lotsa handia ematen dit. Hori da nire arazoa. **I.** Nire muga hitz egitea zen. Zaila da, baina aukera badugu saiatzen gara. Euskaldunak oso pazienteak dira eta eskertzen dute gurekin euskaraz hitz egitea.

## 10 Euskara ikasteaz gain, zer eman dizue euskaltegiak?

**M.** Taldean oso gustura egoten naiz, oso pozik etortzen naiz. Maila desberdinak ditugu, eta Jaione irakaslea gaixoa oso ongi moldatzen da.

**N.** Irakaslea bikaina da.

## 11 Zer aholku edo gomendio ematen diezue euskara ikasten hasten direnei?

**M.** Pazientzia izateko eta aurrera egiteko. Behin hasita ez utzi.

**I.** Hizkuntza bat ikasteko praktikatu behar da. Ezin da beste modu batera ulertu. Garrantzitsuena motibazioa da.

**N.** Hemen presiorik gabe eta gure erritmoan ikasten dugu. Niretako primerakoa da.

*Zure irudia*  
**BERRITU**

*Logoak, bisita txartelak, publizitatea, flyerrak...*

948 564 275  
 Foru plaza, 23-1. Altasu  
 @Egokomunikazioa.eus  
 www.gomunikazioa.eus

**gk**  
IRAKASLEA